



# GOIERRITARRA



**Murumendiko  
dama berriak**

Arg.: M. Albisu

**FS**  
oto istema

**ORDIZIA**

Tren geltokiaren aurrean

☎ 88 93 25

**KARNETERAKO ARGAZKIAK**

6 ERAMAN ETA 4 ORDAINDU

Edozein eratako dokumentuentzat balio  
dutenak: NAN, Gidatzekoa, e. a.

**Kamara konpaktu eta  
prismatikoetan aukera zabala!**







# SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN

Sagardotegia



**aulia**

☎ 80 60 66

**LEGORRETA**

**BEGIRISTAIN**

Egunero zabalik 19etatik 23etara  
Igandeetan itxita  
Eguerdietan enkarguz

☎ 65 28 37

**IKAZTEGIETA**

**AMEB**



*Sagardotegia*

URTE OSOAN  
ZABALIK

Astegunetan  
afariak.

Astebukaeretan  
bazkari eta  
afariak.

☎ 16 25 23

Zubierreka, 9  
**LAZKAO**

**ZALBIDE**  
SAGARDOTEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera  
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean  
Txitxarroa eta arraiak parrilan

☎ 65 21 76

**ABALTZISKETA**

**KORTA**

Menu berezia 2.200 pzta.  
Tortila, txuleta individuala, gazta,  
menbrillu eta ardo edo sagardoa

☎ 88 71 86

**GABIRIA**



Sagardotegia, jatetxea  
Logelak

☎ 65 40 05

**ABALTZISKETA**

*Olagi*



Urte guztian zehar zabalik

☎ 88 77 26

**ALTZAGA**

**OTATZA**

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik  
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-  
kita (asteaz zehar eguerditan enkarguz)

Txotx denboraldia 15tik zabalik

☎ 80 17 57

**ZERAIN**



**ETXE-ZVRI**  
SAGARDOTEGIA

☎ 88 20 49

**OLABERRIA**

**TXERTAKADI**

- ✓ Sagardotegiko denboraldian zaba-  
lik, maiatza alderarte
- ✓ Denboraldia bukatu eta urte bukaer-  
a arte enkarguz irekiko da
- ✓ Igande eguerdi eta gauetan zabalik
- ✓ Astelehenetan atsedena.

☎ 16 13 59 **ZALDIBIA**



**TXIMIETA**

*Sagardotegia*

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 88 11 28


**ORDIZIA**

**URBITARTE**



☎ 18 01 19

**ATAUN**



**OTEÑE**

**ERRETEGIA**

☎ 88 98 48

**GAINTZA**



## GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:  
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1  
(Postetxe gainean)  
124 posta-kutxa  
20240 Ordizia  
Tfnoa: 88 96 12  
Faxa: 88 27 19

### Zuzendaria:

Loinaz Agirre

### Maketazioa:

Mikel Albisu

### Publizitatea:

Josune Agirre

Argider Mujika

### Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,  
Ane Martin, Loinaz Agirre eta  
Estitxu Imaz.

### Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,  
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,  
Koldo Urrestarazu, Edurne Albi-  
zu, Josune Aldabe, Aitor Arrue,  
Rufino Iraola, Aitziber Murua,  
Iñaki Murua, Eñrike Enparantza,  
eta Ander Naldaiz.

### Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga  
9. Oñati)

Tirada: 6.800 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere  
gain hartzen derrigorrez, aldiz-  
karian adierazitako esanen eta  
iritzien erantzukizunik.

## HAMABOSTALDIAN NABARMEN



### 16-19 urte bitarteko neska lan- gabetuentzat soldadura ikastaroa

Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa, Goieki Garapen Agentziarekin elkarkidetzan, 16-19 urte bitarteko neska langabetuak lan mundura bideratzeko europar proiektu bati hasiera ematera doa martxoan.

Bertan, soldadura arloan formazio ikastaro bat emango da urte betez Goierri Lanbide Eskolako azpiegiturarekin, enpresetan lan praktikak eginez osatuz; aldi berean, lan mundura bideratzeko orientabidea eta jarraipena egingo da. Une honetan, eskualdean lan-eskaintza duen formazioa da soldadura langintza.

Martxoan hasi eta urtebeteko iraupena izango du ikastaroak. Plazak mugatuak dira, 15 lagunentzat,

hain zuzen ere. Ikastaroan zehar emango diren hitzaldiak eta orientabideak dena den, irekiak izango dira. Aurten ikastaroa egiterik ez dutenek, datorren urtean ere aukera izango dute, proiektua bi urtekoa baita.

Otsailaren 25a baino lehen eman behar da izena Goierri Lanbide Eskolan, 88 92 00 eta 88 44 01 telefonoetan.

### Iazko esperientzia

Iaz egin zen emakumezko langabetuentzako soldadura ikastaroa, Goierri Lanbide Eskolan, INEMetik bideratua. 15 lagunek hartu zuten parte eta gehienak (ahal duten guztiak) lanean ari dira inguruko enpresetan eta ondo hartuak izan omen dira.

## BOTA BERTSOA



**Irati Goikoetxea**  
(Goierriko bertso-eskolako ikaslea)

### Ihauteriak

*Doinua:  
Galtzaundirena*

Hartuz pailazo eta supermanen antza, elkar ezagutzea ez dago erraza, dena umorea da, festa ta jolasa, ihauteriak dira eta ongi pasa.

*Ihauteri, ihauteri,  
mozorro bat bi aurpegi...*

Tankera zelebrea jantzi da aitona, soinean daramala amonaren gona, sorbaldan zapia ta, eskuan fregona, xahartuta egon arren du umore ona.

*Ihauteri, ihauteri,  
mozorro bat bi aurpegi...*

*Eusko Jaularitza-  
ko Kultura Sailak,  
Gipuzkoako Foru  
Aldundiak eta*

*GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria*



### GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak .....

Helbidea .....

Herria .....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



## Ai Geala berpiztu nahirik

Bost urte paseak dira Ai Geala euskara-taldea sortu zela. Hasiera batean, bere bizitasuntxoia izan zuen herrian. Gero ordea, bere baitan malkaltzen joan zen eta azken urteotan ez du ezer egin. Orain, lehengo errautsetatik berpiztu egin nahi da eta horretarako, otsailaren 14rako (11etan Udaletxean biltzeko) deialdi zabala egin zaie bazkide guztiei eta izan nahi luketenei. Ea oraingoan sendoago ekiten dion.

Beasaingo euskaldun euskaltzale guztiei dei egiteaz gainera, zerbait adierazi nahi nuke gertatuaz. Nire ustez, Ai Geala euskara-taldea, urteroko funtzionamendu normala eta arrunta ez sistematizatzeagatik (kuotak kobratu, programa bete, karguak berritu, etab.), hau da, beste edozein elkarte arruntek egiten duena ez egiteagatik, iritsi da iritsi den egoerara. Edozein elkarte eta antolamendutan ere, funtsezkoa da urteroko bizitza normala finkatzea eta hori finkatutakoan, jarraipena ziurtatua dagoenean, egitarauak zabaltzen, hobetzen, hazten eta proiektu berriak egiten has daiteke, baina irauteko lehen baldintza bizirik egotea da eta horretarako elkartearen bizitza arrunta finkatu behar da. Ea bada oraingoan finkatzea lortzen den.

**Andoni Sarriegi Eskisabel**  
(Lehen batzordeko  
Lehendakariordea)

## Ordizian hazi eta Lazkaon elkartu

Kaixo, ezarri dudan izenburu honekin bi pertsonetaz ari naiz. Biak Lazkaoko Eskola Tailerreko arduradunak dira martxan jarri zenetik. Iñaki Dubreuil (E.T.ko zuzendaria) eta Jose Antonio Dopazo (zinegotzia eta bertako arduraduna).

1997ko azaroaren 21ean (eta beraien aldetik honi buruz ezer aipatu gabe) E.T. ko zuzendaritzatik adierazi zitzaidan Lazkaoko Udaleko Gobernu Batzordean azaroaren 12an hartutako erabakiaren berri. Erabakia nire lan kontratua ez berritzea izan zen nire ordurarteko lanegunetan huts egiteagatik (absentismo laboral), E.T.ko zuzendaritzak prestatutako txosten zirriborro batean oinarrituz. Txosten zirriborro honetan lanegunetako hutssegiteak aipatzen dira, hauen artean: E.T.ren lehenengo fasean bi hilabete nire ezkerreko belaunean egindako ebakuntza bategatik (hau nere aldetik jakinarazi nien eta ni falta nintzen bitartean ikasleei emateko behar zen materiala idatzita utzi nuen) eta E.T.aren bigarren fasean edo azkeneko 6 hilabetetan nere ezkontzaren zegozkidan 15 egun.

Iñaki Dubreuil jakinarazpen honen ondoren INEM eta Udalarekin harremanetan jarri nintzen (lehenengo proiektuaren finantziatzailea eta bigarrena promotorea. E.T.ko langileen kontratu berritzearen erabakia Udalaren eskuetan dago).

INEMek kontratua berritzearen erabakia bere eskue-

tan ez zegoela erantzun zidan. Udalak entzun zidan, eta ikuspegi ezberdinak (niri buruz) trukatu nituen Jose Antonio Dopazorekin tentsio handiko denbora laburrean. Erabakia berriro hartuko zutela adierazi zidaten, nagusiki bi indize hartuko zituztela kontuan adieraziz: E.T.ko ikasle eta langileen iritzia, eta martxorako aurrikusita nuen nire eskubiko belaunaren ebakuntza E.T.ren proiektua bukatu arte atzeratzeko konpromezua hartzea.

1997ko azaroaren 25ean, E.T.ko ikasleek eta langileek beraien artean sinadura bilketa egitea erabaki zuten (40tik 38 bildu zituzten), nire kontratuaren berritzearen alde azalduz; eta Gobernu-batzordearekin edo Udaleko agintari gorenarekin (Alkatetza) biltzeko eskatu zien Zuzendaritzari.

Beste bilera bat izan zen Gobernu-batzordearen, E.T.ko Zuzendaritzaren (Iñaki Dubreuil) eta E.T.ren Obraren Zuzendaritzarekin (Juan Luis Astola). Udalaren aldetik (Jose Antonio Dopazok izan ezik), ni ez kontratatzeiko erabakia zuzentzeko eta hurrengo fase-rako (6 hilabete) kontratua berritzea proposatzeko jarrera azaldu zen, nire aldetik, ebakuntza E.T.ren proiektuaren bukatu artean atzeratzeko konpromezua hartuz gero.

Proposamen berri honi buruz, aipatutako hiru lagunek, baja gehiago hartuko ez nuenaren konpromezua hartzea ezinezkoa zela, eta behin kontratua esku artean izanez gero, ebakuntzarako baja hartu nezakeela, argudiatu zuten. Hori dela eta,

Gobernu-batzordeak bere asmoak zuzendu eta behin-betiko kontratua ez berritzea erabaki zuen.

Bukatzeke, bakarrik esan, miserableak, gizagaiztoak iruditzen zaizkit, eta Iñaki Dubreuil eta Jose Antonio Dopazok gai honi buruz hartutako jarrerak susmagarriak direla, guztia nahastuz eta erabakiaren errua INEMi boteaz, ondoren izan ditudan elkarriketetan, INEMak ni ez kontratatzea edo kontratatzea erabakitzeko ahalmenik ez duela adierazten zaidanean, ez baitagokio. Era berean salatu zenbait mugimendu arraro eta adieraziak izan behar luketenak, Jose Antonio Dopazoren aldetik, INEMen nire izena zikindu, eta organismo honek ni ez kontratatzekeko Udalarari idatzitako eskutitzaren aurretik.

Helburuak bitartekoak inoiz ere ez baditu justifikatzen, pertsona batek (Iñaki Dubreuil), 'lanpostua defenditzea'gatik inork gutxik pasatu ditu nik pasatu behar izan ditudan bezalako operazio hain makiabaliakoak; tristea izanez gora igotzeko helduleku errugabeak eta besterenak bilatu behar izatea.

**Karlos Escañó**



## TXANDAKA

### Haren erderarik ezin ulertu euskeraz jakin ezean!



Hauxe zion, oraindik asko ez dela, lagun artean kontu-kontari ari zen batek. Eta hori buruan nuela, bidean nentorrela, ez nuen gusto handirik izan egungo komunikabideetan entzuten dugun euskera belarrietaratzean. Erderaz (gaztelera?) hainbesteko hankasartzerik entzuten ote da? Azken boladan euskerari aurka egitea beste helbururik gabe ari zaizkigunek sutzen bagaituzte, egu-nero "hain xelebre" ari direnek ere, sutu behar gintuzkete, ezta?

Komunikabideetan euskera era duinean erabiltzeko ardurarik ba ote du inork? Audientzia goraka doala esateak zer esan nahi du, lainoetan dabilela, hain euskera korapilatsua ulertu ezinik?

Gainera, ba al dakizue zer gertatuko zaidan idazlan honekin? Batek baino gehiagok, kontra egiteagatik ari naizela usteko duela eta, komunikabideetan, euskeraz sekula baino gehiago egiten omen denez, sekula baino euskera hobea egiten dela usteko du. Beno, uste baino gehigo, ziur nago; zergatik ez? Azken batean, euskera hori da berak ikasi eta egiten duena!

Hona hemen adibide batzuk —itxurakeriarik gabe— ikusi nahi duzuenontzat:

- "Batzuk orain ere lanean gaude eta zu oporretan zabitza". Lanean egon?
- "Kantatzea ez zait oso ondo ematen baino..."??
- "Publikoak bere txistuak bota dizkio arbitroari". Gizarajoa, blai eginda utziko zuten!
- "Falta argia...". Hurrengo, iluna orduan.
- "Zaletuek gola abestu dute, baino kanpotik joan da" (...)

Hauen euskera ulertzeko, erderaz jakin beharra dago; bar-ka, gaztelera jakin behar da, frantsesa jakiteak ez baitu balio.

Iñaki Murua

## Gustatzen al zaizu mozorrotzea?



**Jon Azpiazu**  
16 urte, ikaslea  
ormaiztegiarra

Ohitura handirik ez daukat. Eskolan mozorrotzen ginen, baina handik at-  
ra ginenean ohitura galdu dugu.

**Mikel Ezeolaza**  
17 urte, ikaslea  
ormaiztegiarra

Gustatzen zait baina ohitura galdu egiten da eskolatik ateratakoan. To-  
losara joango gara ihauterietara, eta  
haizeak jotzen duenaren arabera,  
mozorrotu egingo gara.



**Mikel Knight**  
12 urte, ikaslea  
ataundarra

Bai. Neskaz mozorrotuko naiz, amo-  
nari kendutako arropekin. Eskolan  
egiten dugu ihauteri festa.



**UNTXUNDEI**  
garajea

**OSINALDE**  
karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06  
**ORMAIZTEGI**

"Eguneroko ogia,  
ogi bereziak eta  
pastel ezin hobeak"



|               |             |                |
|---------------|-------------|----------------|
| K. Nagusia 35 | Elosegi, 14 | Sta. Maria, 19 |
| ☎ 88 77 58    | ☎ 88 72 79  | ☎ 16 00 44     |
| BEASAIN       | LAZKAO      | ORDIZIA        |



**MUJICA**  
**LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 19  
☎ 88 11 94  
ORDIZIA



## ZINEA

### GOIENIZ:

**Otsailak 26, 'Lisboa story',** 21:00etan, Beasaingo Usurbe Antzokian.

### ORDIZIA:

**'La tormenta de hielo',** Ostirala 13: 22:15; larunbata 14: 19:30, 22:15; igandea 15: 19:30 - 22:15; astelehena 16: 19:30.

**'El guardian de las palabras',** Igandea 16: 16:45.

**'Titanic',** Ostirala 20: 22:15; larunbata 21: 18:30, 22:15; igandea 22: 18:30 - 22; astelehena 23: 19:30.



### 'Lisboa story'

**Win Wenders (Alemania, 1994)**  
Soinu-ingeniari alemaniar bat Lisboaara joango da, bere lagun bat egiten ari den filmearen soinu lanez ardura-tzera. Bertako soinu aztar-nak jasotzen hasi ahala hiri zuriaren sorginkeria mires-garriak irentsiko du, erre-mediorik gabe.

Dokumental itxurakoa (hasiera batean, 1994ko hiriburua sustatzeko enkar-gua), 'Lisboa story'-k gauza asko darama barnean: musika ederra (Madredeus folk talde ezagunaren eskutik), errepide luzeak, irudiari, zineari eta hiriari buruzko hausnarketa eta zenbait ideia inozentzia galduaren inguruan Wendersek umorez jantzita irudikatzen dituenak.

Hau da zuzendari alemaniar haundiaren 18. filmea, 'Paris-Texas' edo 'Tan lejos, tan cerca' maisulan-en egilearen beste lan bikain bat.

## DANTZAK

### BEASAIN:

**Otsailak 21,** ihauterietako dantzen jaialdia, Loizozko San Martin plazan, 17:00etan, Ostadar dantza-taldeak antolatutik.

## BESTELAKOAK

### BEASAIN:

**Otsailak 18,** Itziar Zubizarretak ihauterietako ipuinak kontatuko ditu, Kultur Etxeko Liburutegian, 18:30etan.

### ORDIZIA:

**Otsailak 14,** Kaldereroen konpartsaren irteera, gaueko 10.00etan.

## IKUSENTZUNEZKOAK

### BEASAIN:

**Otsailak 21,** Natur gaiei buruzko ikusentzune-ko proiektzioen hasiera, Aizkorri Mendizale Elkartean, 20.00etan.

## IKASTAROA

### LAZKAO:

**Martxoan** astelehene-tik ostegunera hiru dimen-tsiotako koadroen ikasta-roa izango da Lazkaoko Gerriko Txokoan, 4.000 pezetaren truke. Izena otsailaren 26aren aurretik eman behar da, Gerriko li-burudendan.

## ERAKUSKETAK

### BEASAIN:

**Otsailaren 14tik 28ra,** IV. Aterpe pintura lehia-ketan aurkeztutako lanen erakusketa, Aterpe taber-nan: Mellane Vegas, Jorge Peña, Francisco Rojo, Dionis Arango, Pili Pat-ton, Manu Lopetegi, Mo-desto Ferreira, Julia Mo-rrroy, Itziar A. Mendiola eta Itziar Gorrallalde.

### ORDIZIA:

**Otsailaren 20ra arte,** Arrate Perezen pintura erakusketa, Barrenan.

## IBAI-ONDO



**ZURGINTZA  
ALTZARIAK  
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g  
☎ 880543 BEASAIN


## ARRIETA

JATETXEA

☎ 88 00 02

OLABERRIA

Ezkontzak,  
jaunartzeak,  
bataioak...  
era guztietako  
ospakizunak



# ondoeta

Nagusia, z/g.

Tfnoa.: 883102. Faxe: 88 0872

**ALTZAIRUZKO ATEAK:  
AUTOMATIKOAK,  
BASKULANTEAK,  
MARATILDUNAK,  
STANDARRAK,  
ETA ABAR.**

ITSASONDO



## MENDI-IRTEERAK

*Beasaingo mendizaleak:*

**Otsailak 15:** Iriberra (1.204 m.).

**Otsailak 22:** Laartera (810 m.).

*Idiazabalgo mendizaleak:*

**Otsailak 15:** Mendizaleen Olinpiada (I).

**Otsailak 21-22:** Eskia Panticosa-Formigalen.

*Ordiziako mendizaleak:*

**Otsailak 15,** Amezketu-Uakorria.

## Talo ikastaroa

Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkartek talo ikastaroa antolatu du otsailaren 24, 25 eta 26rako. Arratsaldeko 3.00etatik 4.00etara burutuko da, Lazkaomendiko elkartearen. Bertan parte hartu nahi duenak Gerriko liburudenda eman behar du izena otsailaren 16a baino lehenago. Ikastaroaren prezioa 1.000 pezetakoa da.

Otsailaren 27an, berriz, talo-afaria izango da, Lazkaomendiko elkartearen bertan. 1.300 pezetaren truke, nahikoa talo jateko aukera izango da. Otsailaren 24ren aurretik eman behar da izena, Gerriko liburudendan edo tabernan.

## DEBALDEKO IRAGAR-

### Etxebizitzak:

☐ Bilboko pisu bat osatzeko pertsona bat behar da. 88 21 47. Larraitx.

☐ Pisua salgai Altsasun, berriua eta ganbararekin. (948) 56 35 56.

### Salerosketak:

☐ Kutxa erregistratzailea salgai. Casio 15 CR, DL1817 modelo. 33.000 pezetan. 88 10 35.

☐ Txirrindua salgai, Vitus koadroarekin. 161881.

☐ Vaillant berogailua salgai. Modu onean, Berria. 10 litrokoa. 88 99 32.

☐ Hozgailua salgai. Urtebetekoa. Aspex markakoa. Neurriak: 1,46 m. x 55 zm. 886778.

☐ Peabe TKO baxu anplia salgai. 80 batiokoa.

88 47 68. Jon.

☐ Yamaha Virago 1100 motorra salgai. Egoera onean. Alberto 68 34 31. Gauean deitu.

### Lana:

☐ Neska bat prest dago etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Esperientziaduna. 16 00 99.

### Bestelakoak:

☐ Eskoriatzan ikasten dugun hiru neska gara eta eguneroko joan-etorritako Zumarraga-Gasteiz norabidea egiten duten kotxeekin harremanetan jarri nahi genuke, garraio publiko ezagatik. Oztopo handienak Zumarragara bueltatzeko ditugu, ordubatean klasetik aterata. Ordaintzeko prest geundeko. Julene 72 24 57.

## GOARDIAKO FARMAZIAK



**Astegunetan:** Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 88 05 87.

**Otsailak 14-15:** Atorrasagasti (Paz auzoa - Ordizia). 88 29 38.

**Otsailak 21-22:** Lurnaga (Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 881828.

## BERRIZ ARANBURU

## ERROPADENDA

Nagusia, 8

88 04 53

BEASAIN

## IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Banakako laguntza
- ✓ Talde txikiak

Informazioa:

16 01 20 Joan Iturrialde, 5 BEASAIN

## MANDUBIKO BENTAJATETXEA

MANDUBIKO GAINEAN  
Urolatik Goierriako bidean

Tfnoa.: 88 26 73



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batz beste





**Enrike Enparantza**  
*Sasieta Mankomunitateko*  
*Ingurugiro teknikaria*

***“Goierri eta Urola  
Garaiko herritarrok  
berreskuratze  
portzentai nahiko  
onak ditugu, bai  
estatu mailan eta  
bai Europa  
mailan ere”***

**I**azko urtean Sasieta Mankomunitatean egingakoa ondorengo puntuetan labur daiteke:

Goierri eta Urola Garaiko 20.814 tona Hiri Hondakin Solido jaurti dira Sasieta zabortegian. Honek 1996arekiko %4,5eko gehikuntza suposatzen du. Kantitate honi Deba Garaiko 18.523 tona gehitu behar zaizkio.

Hondakin Solido Inerteak (industrialak eta eraikuntza-koak) ere bota dira, 28.405 tona hain zuzen ere. Honek 1996arekiko %45eko gehikuntza adierazten du.

Goierri eta Urola Garaiko hondakinak 29.219 tonetara iristen dira guztira. Kantitate honetatik % 42 Hiri Hondakiniei dagokie eta beste % 58a Hondakin Inertei.

Hiri Hondakinen barruan bi talde bereiz ditzakegu. Alde batetik hiritar jatorria duten hondakinak (1. Taldea), adibidez, etxeetakoak, merkatuetakoak, kale garbiketakoak, eta abar. Bestalde, hiritar jatorria ez dutenak (2. Taldea), adibidez, akabaturako animaliak, berdegunetako hondakinak, ximaurra, oilo-zirina eta abar.

Iazko urtean Lehenengo Taldeko gehikuntza % 5,2koa izan da. 1994. eta 1995. urteetan hondakin hauen jaurtiketa txikiagotu egin zen portzentai txiki batean, 1996an aldiz gehikuntza nabarmena gertatu zen, % 6,9koa hain zuzen ere, eta iaz ere % 5,2ko gehikuntza eman zen.

Honen arrazoi nagusia etxeetako hondakinen gehikuntzan datza (% 4,6). Hau da, iazko urtean gure zabor poltsak pisu handiagoa izan du.

Dena den, esan beharra

## **Sasieta Mankomunitatea: 1997ko ekitaldia**

dago, berreskuratutako materialen kantitatea (beira, papera, ontzi arinak, pilak etab.) proportzionalki gehiago handitu dela, % 13,4ra iritsiz.

Honek zera esan nahi du, Goierri eta Urola Garaiko biztanleok 970 gr. sortu ditugula egunero, edo beste modu batera esanda, urte batean 355 kilo sortu ditugula. Honek % 6ko gehikuntza bat adierazten du.

355 kilo hauetatik 47 kilo berreskuratu dira berziklatzeko, eta beste 308 kilo Sasieta zabortegi kontrolatuan bota dira. 1996an 43 kilo berreskuratu ziren eta 292 kilo bota.

Aipatzekoa da 1996tik 1997ra berreskuratze portzentaia 6 dezimetan hobetu dela. Aipatzekoa baita ere esperientzia pilotoaren ingurunean berreskuratze portzentaia % 14,8koa dela.

Honek zera esan nahi du, Beasain, Ordizia, Lazkao edo Olaberriako biztanleek 53 kilo materiale berreskuratu dituztela. Kantitate honetatik 27 kilo paper eta kartoia dira, beste 18 kilo beira, 7 kilotik gora ontziak eta 300 gramo beste zenbait, hala nola, pilak, jantziak edo botikak.

Aipatzekoa ere, udaberri honetarako Mankomunitateko herri guztietara zabaldutako dela ontzi arinen bilketa. Horretarako edukinontzi be-

rriak jarriko dira eta beiraren eta paperaren modukoak izango dira.

Beirari dagokionez, Mankomunitateko biztanle bakoitzak 17,6 kilo berreskuratu ditu batazbestez, urtean zehar. Paperaren bilketa ere piska bat hobetu da. Gutako bakoitzak 25,8 kilo paper bildu ditu urtean zehar. Honek % 41,3ko berreskuraketa adierazten du. (Jasotako kiloan kopurua % 9,8 hobetu da, eta 2,5 puntuetan berreskuratze portzentaia).

Paperaren bilketa ere pixka bat hobetu da. Gutako bakoitzak 25,8 kilo paper bildu ditu urtean zehar. Honek % 41,3ko berreskuraketa adierazten du. (Bildutako kantitatea % 9an hobetu da eta berreskuratze portzentaia 1,1 puntuan).

Herriz herri aztertzen baditugu paper eta beira bilketa zera ikus dezakegu, herri handien artean, beira gehien biltzen duten herritarrek Ormaiztegiakoak direla, ondoren Urretxu, Ordizia eta Legazpi datoz. Paperaren kasuan berriro ere ormaiztegiarrak dira onenak, Legazpiren, Beasainen eta Ordiziaren aurretik. Beraz, Ormaiztegi da gure eskualdeko herri berziklatzaileena.

Ontzi arinen bilketa ere hobetu da. Esperientzia egin ari den ingurune herri bakoitzak 7,6 kilo bildu ditu urtean zehar. Honek % 29,4ko berreskuratzea suposatzen du. (Bildutako kantitatea % 16an hobetu da eta berreskuratzea 3,1 puntuetan).

Bukatzeko, aipatu Goierri eta Urola Garaiko herritarrok berreskuratze portzentai nahiko onak ditugula, bai estatu mailan eta bai Europa mailan ere.



## ERREZETA



**Lurdes Erauskin**  
*Altzagarate jatetxea*  
*Altzaga*

### LEGATZ BUZTANA LABEAN

Kiloko legatz freskoaren buztana tarteran jarri, bi aldeetatik gatz eta oliba-olioa botata. Tarteran arrain salda piska bat jarri. Labe berotan 20 minutuz eduki.

Minutu bat falta denean, 12 almeja handi eta 8 ganba fresko bota.

Legatza atera eta fuente batean jarri. Bere saltsa bota gainetik, eta ganbak eta almejak inguruan jarri. Zerbitzatzeko unean, perrexil txikitu piska bat bota.



**Ander Naldaiz**  
*Orlegi dietetika*

Aintzinako herriek gaur egun osasun integrala deitzen duguna ezagutu eta praktikatzeko zuten. Maiak, aztekak, egiptarrak, vedak, zeltak, sufiak... beraiekin eta naturarekin harmonian bizitzen saiatzen ziren kulturak ziren, euren habitata beraien etxea zela ulertzen zuten.

Gaur egun ordea, inguratzeko gaituenari bizkar emanda bizi gara, hainbestekoak ez diren gauzei berebiziko garrantzia emanez, alferrikako eta garrantziarik gabeko elementuekin identifikatuz eta sufrituz. Esango dutenarekiko menpekotasun handiegia daukagu, harrokeria pilatuz, eta honek gure frustrazioen menpe bizitzera garamatza.

Osasun integralarentzat ezinbestekoa da mundu energetikoa azaletik gutxienik

## AHOLKUA

### Osasun integrala

ezagutzea, honetaz baliatzen baita gizakia bizitzeko eta oreka psikiko-fisikoa mantentzeko. 3 elikatze-iturri ditugu maila energetikoan:

● **Janaria:** Guztiok daki-gu elikadurak duen garrantzia. Jaten duguna gara zelularki. Kantitate gutxiago eta kalitate gehiagorekin jaten ikasi beharko genuke. Gaur egun gure elikadura oso produktu landuetan oinarritzen da, biologikoki hildakoak (latak, janari prestatuak, irin errefinatuak, azukreak, koipe hidrogenatuak e.a.). Zenbait kasutan jateko bizitzearaino iritsi gara, garrantzitsuena tripa ondo betetzea delarik. Lehenago edo beranduago, honek gure osasunean ondorioak izango ditu. Gorputzarentzat iturri toxiko garrantzitsuenetarikoa, egunero gure sistema zelularrean sartzen ditugun kontserbanteak, pestizidak, plagizidak, kontrolatu gabeko lehengaiak (transgenikoak) dira. Baina oraindik ere produktu biologikoak aurki ditzakegu, gure osasunarentzat txarrak diren sustantzia kimiko edo toxikorik gabekoak. Baserrita-

rrek beraien produktuak eskaintzen dizkiguten asteroko azokak ditugu. Goierrri bertako ogi biologikoa, gure sistema zelularra elikatuko duena eta ez sabela bete soilik. Dietetika dendak ere hor gaude, gure aletxoak jarritz, elikadura modernoaren elikagi falta zenbait produktuekin osatzen, eta kontserbante, zaporea emateko produktuak, pestizidak eta gai-toxiko gabeko elikagaiak eskainiz.

● **Arnasketa:** Birrikak aire garbiarekin bete behar ditugu egunero, gertuan dugun mendian ibilaldi on bat eginenez, gure zelulak pozteko. Tabakoa, giro kutsatua eta abar dira arnasketaren bidez gaizki elikatze bide batzuk. Lanarengatik giro kutsatuetan arnastea ezinbesteko dutenek behar dute gehien oxigenazio on bat.

● **Pentsamendua:** Seguruenik, hiruetatik garrantzitsuenak. Kezka, beldur eta zer esan gehiegirekin bizi gara. Ez zaigu arazoak konpon-tzen erakutsi, beraietaz kezkatzen baizik (arduratzen ikasi behar da, ez kezkatzen).



**MARIAN LARREA**  
BARNE DEKORAZIOA

- ✗ ERREFORMAK
- ✗ PROIEKTUAK
- ✗ ESZENOGRAFIA

☎ 88 58 48 - 46 34 79  
**Oriamendi, 30 BEASAIN**



**GENERALI**  
Aseguroak

**IÑAKI ARIN BAZTARRIKA**

**Oriako Pasealekua, 20**  
☎ 88 87 02  
**BEASAIN**

**VOLVO**  
**TOYOTA**



**ŠKODA**  
Volkswagen taldea

**ANZIZAR, S.A.**

**Autoen salmenta**  
**Mekanika eta**  
**elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a  
☎ 88 17 00 - 88 17 04  
**BEASAIN**



## Beasainen eta Ordizian atxilotutako 4 gazteak, gartzelan

Urtarrilaren 31eko goizaldeko 1.00a aldera atxilotu zituen Ertzaintzak Idiazabal, 20 urteko Idoia Mendizabal, 17 urteko Idoia Garmendia eta 16 urteko Ekain Mendizabal ordiziarak. Barne Sailaren arabera, atxilotu aurretik, Idiazabalgo ertzain baten etxea koktelez erasotu zuten. Egin egunkarira egindako dei anonimo batek hiru pertsona hauek ertzainaren aurkako erasoarekin zerikusirik ez zutela zioen. Amnistiaren Aldeko Batzordearen arabera, hiru atxilotuak herriko festetan zebiltzan. Ertzaintzaren Arkauteko komisaldegian 4 egunez inkomunikaturik egon eta Madrilgo Auzitegi Nazionalan deklaratu ondoren, Alcala Meco Gazteak gartzelan sartu zituzten hiru ordiziarak. 2 egunez ere inkomunituak egon ziren. Kale borrokarekin zerikusia izatea leporatzen die hirurei. Egozten dien guztia ukatu dute atxilotuek.

Idiazabalgo atxiloteten haritik etorri zen 17 urteko Haritz Zeberio beasaindarraren atxiloteta. Otsailaren 4an atxilotu eta 6an gartzelan sartu zuten. Atxilotetak salatzeke hainbat mobilizazio egin zen Ordizian eta Beasainen.

Atxiloteta hauek salatzeke eta elkartasuna adierazteko, prentsaurrekoa eman zuten atxilotuen sendiartekoek eta Amnistiaren Aldeko Batzordeetakoek, otsailaren 16an. Patxi Larrañaga AABBren bozeramaileak adierazi zuenez, "Ertzaintzaren papera salatu nahi dugu. Atutxak orain dela bi aste egin zituen deklarazioak, erortak egongo zirela prentsaren bitartez azalduz. Barakaldo eta Bizkaia inguruan egin ziren atxiloteten inguruan izan zen porrota ikusita, justifikatu nahi izan dute Ordiziako hiru gazte hauen atxilotetarekin". 16-17 urteko gaztetxoak inkomunikatuak eduki dituztela ere salatu dute, baita Ertzaintzaren inpunitatea ere. "Audientzia Nazionalaren papera ere salagarria da: lan bateratua egiten dute Atutxaren monagiloekin. Ofiziozko abokatuarekin deklaratu zuten. Lehenengo kasua da espetxeratu eta inkomunikatuta jarraitu zutela".

Gestoren arabera, errepresioa ez da bidea. "Ezin ditugu Espainiako gartzelak gaztetxoek bete. Irtenbidea behar du eta gazteen arazoa konpontzen hasi behar da".



Atxilotuen sendiartekoak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeetako ordezkariak, prentsaurrekoan.

Paki Imaz, atxilotuen senideen ordezkariak asteburuan gazteak bisitatu eta gero, orain lasaiago daudela esan zuen. "Gaizki pasatu dute. Ez zioten lorik egiten utzi eta hotza ere pasatu dute. Orain beste preso politikoen babesean lasaiago daude". Haritz Zeberio beasaindarra Ekain Mendizabalekin batera dago.

Egotzi dien guztia ukatu egin omen dute, "baina sartu nahi dieten guztia eta gehiago ordainduko dute, hori nahiko garbi daukagu. Hainbeste denboran atxilotetarik egon gabe, hauek guztia ordaindu beharko dute".

Patxi Larrañagak emandako datuaren arabera, 1997an 700 gazte atxilotu zituzten kale istiluengatik. 3/4 kalean dago, epaiketaren zain. "Epaitu aurretik dagoeneko kondenatuak daude prentsaren bitartez. Ertzaintzak ematen duen bertsioarekin, atxilotu eta

berehala kondenatzen dituzte. Eta hori salatu egin nahi dugu". Paki Imaz senideak azpimarratu nahi izan duenez, "erasotua izan zen etxeko ertzainak esan zuen berak harrapatu zuela Idoia Mendizabal, baina hori gezurra da, hirurak elkarrekin baitzeuden".

### Sabotaia

Ertzain baten etxea erasotu zuten Idiazabalen koktel molotovez, urtarrilaren 31n. Sua eragin zuten eta herritarrek eta suhiltzaileek itzali behar izan zuten.

Egin egunkarian dei anonimo batek erreibindikatu zuenaren arabera, Ertzaintzak duen "jarrera errepresiboa" salatzeke egin zen sabotaia.

### Azken ordukoa

Aldizkaria bukatzen ari gina jakin genuen, atxiloteta eta miaketa gehiago izan zirela otsailaren 17an Araman, Zerainen, Gaintzan eta Beasainen.

Argazkiak: Iñaki Garmendia / Argazkiak

En la edición de esta publicación colabora:



fundazio  
fundación



## CAF

Beasaingo CAF Ingalaterran 250.000 milioiren bi kontratu eskuratzeko lehian ari da. Virgin taldeari tren materiala saltzeko lehiaketan parte hartzen ari da. Bi erosketa atera ditu lehiaketara Ingalaterrako Virginek, eta biak eskuratuz gero 250.000 milioi pezetaren eskaria egingo luke CAF enpresak. Kontratua lortzeko, Kanadako, Alemaniako eta Italiako konpainiak izango ditu lehiakide.

## Adur Ezenarro

20 urteko Adur Ezenarro ordiziarrek Bergarako Jardun elkarteak antolatutako 'Amodiozko gutunen IV. Berrigara lehiaketa' irabazi du. Moja batek apaiz bati egiten dion eskutitza aurkeztu zuen sariketara, 'Señora' izenburuarekin. Ezenarro 75.000 pezetako saria jaso du.

## Eneko Caballero

Igandean Ordizian jokatu zen Euskadiko Martxa Txapelketan Eneko Caballero ordiziarra bigarren izan zen. Txindoki A.T.ko martxalari hau kadete mailako proban aritu zen eta 5 Km.ko ibilbidea burutu ondoren J.Garcia irabazlearen atzetik sailkatu zen. Jende ugari biltzea lortu zuten oraingoan ere antolatzaileek, Ordizian ohitura bihurtzen ari den txapelketa batean. Nagusien mailan Real Sociedad-eko M.Odriozola izan zen nagusi gizonetakoan.

## Txirrindulari afizionatuak

Goierriko txirrindulari afizionatu ugari hasiko du denboraldi berria martxoan. Taldeetan dauden txirrindulariak

## Sasietako zabortegiko tunel berriaren obra ikusgarriak

Tunel berri honen eraikuntzaren arrazoia, beste mankomunitateen transferentziakamioiek sartzeko duten arazoetan datza, oraingo neurriak ez baitira nahikoak. Mankomunitate hauen kamioiak oso handiak dira, 5 ejetakoak, ahal duten hondakin kantitate handiena garraiatu ahal izateko.

Gaur egun, muga garrantzitsuena alturarena da. Oraingo tunelak 4 metro dituzte puntu altuenean. Aipatzekoa da, ikastetxeetatik etortzen diren haurrekin bisita oinez egin beharra daukatela Sasietakoek, autobusa ez baita sartzen tunelean. Tunel berria arazo hauen irtenbidea izango da. Tunel honen altuera 5,5 metrokoa izango da. Gainera zirkulazioa bi zentzuetan izango du.

Trenbideak sarrera be-

lariak hauek dira: Beasaingo Beñat Garaialde (Iberdrola), Anartz Mujika (Iturriaga), Igor Aranburu (Arrasate T.E.), Unai Paredes (Kaiku), Koldo Camacho (Tradipa), eta Txomin Bartolome (Iberdrola), Itsa-



rriaren gainetik pasatzen direnez, tunel berriaren eraikuntza kontu handiz egin beharrekoa da. Hau dela eta, eraikuntzarako erabiliko den teknika oso zehatza eta aurrerakoa izango da, eta aldi berean bitxia eta ikusgarria.

Lehendabizi, horretarako prestatu den oinarri baten gainean tunela eraikiko da. Bere pisua 800 tonakoa da. Ondoren trenbidea finkatu da. Hirugarrenik, zortzi katu hidraulikoen bitartez tunelari bultzatzen zaio, mendia zulatuz eta sarrera berria sortuz. Katu bakoitza 250 tonako pisua mugitzeko

gai da. Indar honekin lurra eta paretak egiten duten marruskadura indarra saihesten da. Eraikuntza juxtu trenbideen azpitik sartuko da. Tunela mendian sartzen den heinean, lurra eta harkaitza ateratzen dira eskabadoreekin. Beraz, zulaketako fasea trenak gainetik dabiltzala egingo da. Zulaketa erritmoa 3 metrokoa da eguneko. Beraz, sarrera berria 7 eguneko epean izango dugu, zulaketa 21 metrokoa baita.

Obra hauen kostua 115 milioikoa da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko ditu.

sondoko Zugaitz Ayuso eta Mikel Gaztañaga (Caja Rural), Ataungo Dioni Galparsoro (Kaiku), Legorretako Ruben Gonzalez (Arrasate T.E.), Ordiziako Xabier Sarasola (Caja Rural), Ormaiztegiako Xabier Elorza

(Tradipa), Zaldibiako Ormaetxea (Tradipa) eta Zegamako Aitor Perez (Olarra-Orbea). Hauek gain beste hainbat independente bezala arituko dira 98ko denboraldi honetan. Txirrindulari hauen berri zabalagoa GOIERRITARRAren hurrengo zenbakian izango duzue.

## Irati eta Ekaitz Goikoetxea sarituak

Urtarrilaren 26an, Euskaltzaindiak eta BBK-k Azkue sariak banatu zituzten idazle gazteen artean. Irati eta Ekaitz Goikoetxea beasaingotarra bakoitza bere adinean olerkien modalitatean izan ziren sarituak, 404 lanen artean.



## Gurutze Gorriko ikastaroak

Goierriko Gurutze Gorriak lehenengo laguntzarako eta osasun garraio laguntzaile-rako ikastaroa antolatu du. Larunbatetan izango dira ikastaroak.



# Kaldereroak etorriko dira berriz ere Ordiziara

**A**zken aldikoz 1934. urtean etorri omen ziren Ordiziara Hungariako kaldereroak. Harrez gero, ohitura galduta izan da eta ordiziar laguntalde baten ekimenez, bihar, otsailaren 14an, kaldereroen antzezpena berreskuratuko da. Ihauteri aurreko astean etorri ohi ziren garai batean hungariarrak, sukaldeko zartagi eta ontziak konpontzera. Ihauterien iragarpena izaten zen azken batean. Aurtengoarekin hasi eta urteroko ohitura bilakatu nahi dute antolatzaileek.

Neguaeren bihotzean herrian festa giroa sortu nahirik eta aldi berean, ohitura berreskuratuz, Hungariako kaldereroak etorriko dira ia 75 urteren ondoren, Ordiziara. Laguntalde baten ekimenez, iaz egin zen lehenengo ahalegintxo ohitura berreskuratzeke. Aurtengoan izan da benetako ahalegina. Bihar, larunbata, otsailak 14, gaueko 10.00ak aldean, kaldereroen kantuak eta musika izango da entzungai



1923. urteko kaldereroen argazkia da. Ohitura berreskuratu nahi dute ordiziarrek otsailaren 14an.

Ordiziako kaleetan.

Donostiara baino astebe-teko beranduago etorriko dira kaldereroak Ordiziara. Iñaki Aierbe antolatzaileetarikoa batek argitu digunez, "lehenengo Donostiara etortzen zirela pentsatzen da eta handik Tolosa eta Ordizia aldera. Horregatik aukeratu dugu Donostian baino astebete beranduagoko larunbata". Kaldereroen tradizioaren esanahia ere kontatu digu Aierbek. "Lehen garai batean sukaldeko ontziak konpondu behar izaten ziren. Hungariatik etortzen ziren otsaila inguruan honetan, ihauteri aurretik. Familia osoak etortzen omen ziren". Zartagia jotzen, musika jotzen eta kantatzen etortzen omen ziren. Antzezpena egoki egiteko, zartagi joleez gain,

Beti Argi banda eta Santa Ana eta Oroith abesbatzek parte hartuko dute, egoerak eskatzen duen musika eta kantuak eskainiz. "Lehenengo edizioetan kantuak abesbatzek abestuko badi-tuzte ere, helburua, denborarekin herritarrek beraiek kantuak ikastea da".

Partiturak eta letrak, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala zenak, Donostiako kanta zaharrak bilduz atera zuen liburutik atera dituzte. Zartagiak jotzea, entseiu kontua omen da, danborradan danborra jotzea bezalaxe.

Ingurua ere girotuko dute, eta Plaza Nagusian kanpamendua kokatuko dute. Gurdia, zaldiak eta sua ere lagun izango dira. Herriko kaskoko kaleak zeharkatuko dituzte zartagiak joaz.

Abendutik ari dira musika erritmo egokiz zartagiak jotzen ikasten. Antolatzaileek 25 zartagijole bilduz gero konforme leudekeela adierazi diguten. Hala ere, herritarren artean oso harrera ona jaso dute eta dagoeneko 70tik gora dira zartagia joaz ibiliko diren ijitoak edo zingaroak. Hori bai, zartagijole gehienak 40 urte ingurukoak omen dira.

Kalderero giro honek herritar zaharrenen gogora hainbat oroitzapen berpiztu omen ditu. Iñaki Aierbek dituen datuen arabera, 1934ko aldizkari batean argazki bat ikusi zuten eta 1930eko hamarkadara arte kaldereroak izan zirela pentsatzen da. Zaharrenak zertxobait gogoratzen omen dira, oso txikitik, bertan parte hartu izana.

## Bitxiz beteta

Hungariatik zetozen kaldereroak bitxiz beteta etortzen zirela dio tradizioak, urrezko bitxiez. Aberastasunaren sinboloa omen zen. Ordiziarrek ere hainbat bitxi edo antzeko bildu dituzte okasiorako. Jantzera ere berezia izango dute. Donostiako ereduari jarraituz, gizonezkoek jaka luze ilunak eta bota altuekin aterako dira. Emakumezkoak, loradun gona alaiekin, alkandora eta mantilarekin.

**JOSUNE & KLAUDE**  
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia  
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 16 22 56 **ORDIZIA**

**OINETAKOAK**

**OSKI**  
OSAGARRIAK

- CAMPER - PANAMA JACK - MARTINS - SNIPE -  
- FERRERIAS - JAIME MASCARO - MARTINELLI -

**MERKEALDIETAKO AZKEN EGUNAK**  
**PAIRE SOLTEAK -% 50**  
**POLTSA ETA GERRIKOAK -% 40**

J. M. Barandiaran Plaza, 3 ☎ 88 61 77 **ORDIZIA**



# BEASAINEN... ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA DENONTZAT

BAINA, ZER DA  
ETXEZ ETXEKO  
LAGUNTZA?

ZU EDO ZURE FAMILIAKO BAT EZINEAN  
BADABIL EDO ARAZOAK BADITU...

- *Jaikitzen eta oheratzen.*
- *Garbitzen eta bainatzen.*
- *Janzten eta eranzten.*
- *Jaten.*

ZENBAT  
KOSTATZEN  
DA?

850 PZTA/ORDUKO  
(egunean 3 orduko  
zerbitzua gehienera)

- *Eta zure diru-sarrerak  
behar adinakoak  
ez badira deitu*

**80 52 38**

*telefonora edo  
etorri Beasaingo  
Udaletxera.*

*Lagundu zaitzakegu!*

INTERESATUKO ZAIZU

Deitu 80 52 38  
telefonora eta  
berri emango dizugu.

BAITA  
ERE...

- *Ohea egin,  
erosketak egin,  
eta abar.*



GIZARTE  
ONGIZATEA



BEASAINGO UDALA



JAVI BLANCO 'TXURI' ETA AGUSTIN LINAZASOROREN BASERRI BITXIA:

## Pagorriagan 80 oreinetako esplotazioa

### Murumendiren magalean

**M**atximentauzoan, Murumendi inguruan 600 metrotik gorako altueran, dago Pagorriaga baserria, Beasaingo lurretan. 80 orein dituzte bertan Agustín Linazasoro eta Javier Blanco 'Txuri'k. Oreinak hazteaz gain, turismoa eta natur-eskola sortzea ere badituzte helburu. Funtzio anitzeko baserria eraiki nahi dute.

Duela urte batzuk hutsik zegoen baserria gustatu eta konpontzen hasi, jabeak aurkitu eta alokatu egin zuten. Baserriari etekina ateratzea zuten buruan eta ETBko 'Sustrai' saioa ikusiz sortu zitzairen oreinak hazteko ideia. Gainerako ganaduaren arloa nahiko gaizki zegoela ikusita animatu ziren. "Beste helburu batzuk ere bagenituen, turismoa, eskola... Ingalaterran badaude horrelako ereduak. Gure asmoa ez da ganadura bakarrik dedikatzea, beste aktibitate batzuk ere egitea baizik. Oreinak, horretarako aukera ematen du, ez baitu lan handiegirik ematen. Baina hori bai, le-



henengo ganadua da eta hortik etorriko dira beste ekintzak. Baserri multifuntzionala izatea nahi dugu".

Euskal Herrian 6 bat dira oreinak hazten dituztenak, baina hauetatik bizpahiru dira serio antzera ari direnak, besteek etxerako edo jatetxe bat dutelako bakarrik egiten dute, buru gutxiagorekin.

#### Inbertsio handiak

Inbertsio handiak egin behar izan dituzte, "baserria erosi beharra izan genuen, 19 hektarearekin. Hauetatik 10 hesituak ditugu eta beste 9ak hesitzeko materiala ere badugu. Kanpo aldera dagoena 2 metroko altuerakoa da, barruan metro t'erdikoak ditugu, hauen gainetik erraz pasatzen dira salto eginda. Sarea berezia da

eta neurri hoietako piketeek ere kostu handia dute. Ikui-lua eta biltegi bat ere egin ditugu. Ahal den guztia inguruko egurrarekin, bestela honaino kamioia ekartzea ere asko kostatzen baita", dio Txurik.

Une honetan 80 buru dituzte. Azkeneko 25 Frantziatik ekarri-berri dituzte. Oso inguru egokia da oreinentzat. "Harra Ingalaterratik ekarri genuen eta ekarri zuenak beldurra zuen hemen bero gehiegi egingo zuela abere hauentzat, baina, oso leku egokia zela esan zuen, Ingalaterraren antzerakoa".

#### Oreinak egokiak

Beste ekintza osagarri batzuk egin nahi direnez, oreinak ez du lan gehiegirik ematen. Dena bakarrik egi-

ten dute, beste abereetan zailtasunak ematen dituen erditzeak ere bakarrik egiten dituzte. Titia kentze garaian bakarrik behar dute laguntza. Kumea amaren bularretik kentzeko banatu egiten dituzte, hilabete inguruz.

Hasieran izan dituzten zailtasunak nabarmendu dizkigu Txurik: "hasieran informazio egokia falta izan zitzaigun. Baina bestela oso zailtasun gutxi ditu. Txertaketak eta izaten dira zailak, harrapatzeko zailak izaten baitira, oso libreak eta izutiak dira".

Elikadura aldetik ere ez dute inongo arazorik, edozer jan dezakete. Ogia, ilarrak, zerealak, patatak, arbia, belarra... hori diruaren eta bazkaren arabera izaten da. Zelo edo araldian daudenean eta kumeak elikatzen ari direnean proteinak ematen zaizkie. Bestela, belarrarekin berez nahikoa izaten dute.

Bi urte daramazkete oreinekin. Azoketara eramaten oraintxe hasi dira, Ordizia eta Tolosara gabonetan eraman zituzten. Produktua ezagutzera ematen ari dira eta jakinmin handia piztu dute.

Oreinkumeak normalean Frantziatik ekartzen dituzte,

# Urola Bidaiak

☎ 16 15 46 - 47

K. Nagusia, 36 BEASAIN

#### SAN JOSE ZUBIA - MARTXOAK 18-22

- **BAQUEIRA-BERET** Vieilla Hotela 32.900  
4 egun pentsio erdian, 4 egunerako forfaita.
- **ANDORRA** San Jordi Hotela 29.000  
4 egun pentsio erdian, 4 egunerako forfaita Pas de la Casan.
- **PAS DE LA CASA** 23.800 etik  
4 egun apartamentuan, 4 egunerako forfaita.
- **CANDANCHU** 21.700 etik  
4 egun apartamentuan, 4 egunerako forfaita.

**ESKIA**

GRUPO  
**STAR**  
VIAGES

EUROPA eta  
PENINTSULARAKO  
aukera ezberdinak.  
Agentzian informatu  
zaitez!



diru-trukeagatik. "Lehenengoak Ingalaterratik ekarri genituen, libra nahiko merke zegoelako. Orain Frantziatik ekarrita hobeto ateratzen da prezioz eta, gainera, ganadua hautatzeko aukera handiagoa dago".

### Hazkuntza prozesua

8 hilabeteko umealdia izaten dute. Maiatza aldera erditzen dute, bazka gehiena dagoenean. Jaio orduko identifikazio txarteltxoak jartzen zaie belarrarian, behin ordu batzuk pasatakoan oso zailak izaten baitira harapatzen. Hiru hilabetera titia kentzea egiten zaie, amarenganako zela kentzeko. 18 hilabetera hiltzen dituzte, 90 bat kilo dituztenean, 50 bat kilo kanalean.

Hiltzeko garaian ere badituzte arazoak, "hiltegiak ez daude prestatuak era honetako abereak hiltzeko. Lehenengo aldian, oreinak asko estresatu ziren hiltegiaren eta hori haragian asko nabarmentzen da, erabat gogortuta geratzen da. Gure

asmoa da, datorren urtean, hemen bertan hiltzea eta odol hustutzea. Oreina ehiz-animalia da eta ordubeteko epea dago hil ondoren hiltze-gira eramateko. Eta hemen lasaiago daude", dio Txurrik.

Eguraldi ona dagoenean inguruko larreetan uzten dituzte, libreki. Txarrarekin azkazal gogorak dituztenez lurra asko hondatzen dute eta hobe egoten dira barruan. Asko ibiltzen dira eta haragian hori asko nabaritzen da.

### Koipe gutxiko haragia

Koipe kantitate oso txikia dauka oreinaren haragiak. Zaporeari dagokionez, zaldi-haragiaren tankerakoa da, gozora jotzen du. Prestatzeko garaian, berriz, hestebeteak egiteko oso egokia da, txorixoak, pateak oso onak egiten dira. Solomoa da estimatuena eta garestiena. Jatetxeetan normalean era klasikoan prestatzen da, ehizatutako oreina-eta bezala.



### Abere 'arraroek' jakinmina sortu dute

Jendeak jakinmin handia izaten du. Baserritarrek batez ere parre egiten omen zuten haseran. "Ingalaterratik oreinak zekartzan trailerra etorri zenean, Matximentan, baserritarrek parre egiten zuten. Hala ere, buelta eman du, 2 urte pasatu dira, eta serioago hartzen dute". Azpeitia aldeko jendea, (5 kilometroko pista jaitsi eta 7 minutura dago Azpeitia) asko joaten da oreinak ikustera. "Jakinmin handia dago. Asteburuetan jende asko etortzen da. Iparraldean horrelako granjek kobratu egiten dute sarrera eta diru-sarreraren % 50 horrela lortzen omen dute. Guk momentuz ez dugu kobratzen".

Euskal Herrian orein haragia jateko ohitura ba omen dago, baina ez proportzio handietan. "Ehiztariaren artean tradizio handia dago. Orein-haragia prestigiotsua izan da, jateko jate-txe onetara joan behar zela esaten baitzen. Nafarro aldean saltzen da. Orain arte jatetxeetan bakarrik komertzializatu, harategietan ez".

Orein-esnari dagokionean, ezaugarrietariko bat kantitate gutxi eta proteina askokoa izatea da. Baina ia ezinezkoa da orein-esnaren produkzioa, batetik, maneja ia ezinezkoa dutela-

ko, eta bestetik, esne oso gutxi daukatelako.

Diru-laguntza aldetik, beste abere motekin izaten diren berdinak jaso dituzte, nahiz eta inbersio aldetik ezberdinak izan. "Hesiak jartzeko garaian, adibidez, 1,20 metrotakoa jartzearen dirulaguntza berdina jaso dugu nahiz eta 2 metroko sarea jarri behar izan dugun. Gainera, emango diguten diru-laguntza ez omen da izango oreinen esplotazioagatik, turismoa erakartzeko baizik".



**VIA** *Alpe* **MASTER**

Elektragaiak  
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 © 88 86 84 **BEASAIN**

**TATUAJEAK**

TRIBIALAK, LORAK, TXIMELETAK...  
Zuk nahi duzun marrazkia

**SIBONEY**

Deitu ordua eskatzeko 88 15 50ra  
**MERKE**



## PEDRO MARI GALPARSORO ZUMEZKO ETA JUNKOZKO ALTZARI EGILEA: "Paliza handia eman zion plastikoak zumeari eta junkoari"

**G**ipuzkoako Merkatal Ganbarak artisauei ematen dien saria jaso du Pedro Mari Galparsoro segurarrak. Zumezko eta junkozko altzariak egin izan ditu eta egiten ditu Pedro Marik, 14 urtez geroztik. Gustora hartu du saria.



73 urte ditu Pedro Mari Galparsoro segurarrak eta 14 urte zituenetik ari da junkozko eta zumezko altzariak egiten. 1920an bere aitak eta beste 3 bazkidek sortu zuten Segurako xexteria tailerra. Zuzeneko 40-50 bat lanpostu eta zeharkako beste hainbeste lanpostu sortu zituzten garairik onenetan. "Seguran negozio garrantzitsua izan da xexteria. Familia gutxi egongo dira Seguran, tailer honetatik pasatu ez direnak. 40 bat langile altzariak egiten ibiltzen ziren. Beste asko zumazuritzen. Etxeetan ere emakumeak aritzen ziren berekasa. Normalean gizonezkoek armadura egiten zuten, tejitzea, berri, batez ere emakumeek", dio Pedro Marik. 1951n ordea, krisia etorri eta langile asko bidali behar izan zituzten. Xexteria tailerra 1977rarte egon zen martxan. "Gero zahartzen ari ginen denok, soluzioa bilatu beharra zegoen, eta itxi egin genuen. Nik nereka eta etxean jarraitzen dut, enkar-guzko lanak egiten", aitortu du segurarrak.

### Junkoa

Junkozko lanak egiten zituzten hasieran. Junkoa Pedro Marik argitu digunez, banbu

edo roten bezala ere deitzen zaio, nahiz eta hiztegieta gaztelarazko junko hitza ihia dela jartzen duen. Txinatik ekartzen zuten materiala, "gaur baino hobea. Gaur egun edozer gauza bidaltzen dute Txinatik. Lehen dena sailkatuta bidaltzen zuten. Lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren kalitateko junkoa egoten da. Eta garai hartan esandako kalitatekoa bidaltzen zuten. Gaur egun, ordea, dena nahastuta bidaltzen dute. Materiala bera izaten da, baina lehenengo kalitatekoa kolore berdinekoa izaten da, pintatuta egongo balitz bezala".

Gerra garaian, ordea, inportaziorik ez zegoen eta ezin zen junkorik ekarri. "Zuloa zumearekin betetzen hasi ginen. Baina junkoa material iraunkorragoa da. Zumea bera bakarrik oso ahula da. Geldi edukitzeko bai, baina erabiltzeko ez du balio. Horretarako errefuerzo bat jartzen genion, gehiago iraun zezan".

### Zumearen prozesua

Zumari asko zegoen inguruan garai hartan segurarraren esanetan. Otsail inguru honetantxe ebaki eta udabe-

rrirako prest izaten zen zumea. Ilargiak ere bazuen eraginik, eta ilbeheran ebaki behar izaten zen, bestela pipiak jotzen omen zuen. Zumea gorria eta txuria izaten da, tratamentuaren arabera. "Gorria nahi izanez gero, neurriaren arabera sailkatu, txortatan jarri, kalderan sartu eta egosi egin behar izaten zen. Gero azala kentzen 20-30 lagun aritzen ziren euren makinekin. Zuria nahi izanez gero, berri, sailkapena egin eta txortatan jarrita gero, birlandatu edo trasplantatu egiten zen. Zangak ireki eta han sartzen ziren. Izerdia atera eta lorea ematean zuenean, zuritu egiten zen. Eguzkitan lehortu eta txuri-txuri egiten zen".

1944. urtean plastikoa sortu zen. "Hura ona zen, hiruak eta bosnako tiratan etortzen zenez, berehala egiten baitziren altzariak. Baina hura ere oso ahula zen. Plastikoarekin ere lana egin genuen eta asko produzitu zen. Paliza handia eman zion plastikoak junkoari eta zumeari. Plastikoak janda utzi zuen lantegi hau. Orain berri ere hasita dago eskatzen. Baina gaur egun altzari klase hau inportatu egiten

da, Italiatik eta Txinatik eginda ekartzen dituzte. Alikanten eta Salamancan ere dezente egiten da". Euskal Herrian Pedro Mari Galparsorok gain, inor gutxi aritzen omen da ofizio honetan.

Altzariaren hankak gaztaina-makilaz egiten dira. Garai batean bertako materiala erabiltzen zuten, baina gaur egun Girona aldetik ekartzen dute. Gaztaina-makila prestatzeak ere lan handia dauka. "Basotik ekarri, kalderan sartu, egosi, zuritu, lehortu, almatzenatu... izugarritzko lana du. Horrexegatik ofizio honek ez dauka aurrerako segimendurik. Dena eskulana da eta jendea prezioarengatik keitzen da".

### Artelana

Pazientzia handiko eskulana da zumezko eta junkozko altzarien lana, benetako artelana. Era guztietako altzariak egin izan dituzte eskuz: haurrentzako eta helduentzako butakak, sofak, mahaiak, banketak, aulkiak, hamakak, sehaskak, moisesak, kutxak, xextoak, papeleak... "Irailetik abendura arte, umeentzako butaka txiki asko eta asko egiten genituen. Espainia guztira zabaltzen genuen. Udaberrian, berri, kafetegietarako altzariak egiten genituen batez ere".

### Paris

Duela 22 urtetik gaur arte artisa erakusketa ugartan hartu izan du parte Pedro Mari Galparsorok. Eusko Jaurlaritzak deituta, Parisen ere izan zen hamar egunez, jendaurrean altzariak egiten. Askok saldu omen zuen.



## Ezkio-Itsason erretako Agerre Aundi baserriaren aldeko auzolana eta ekimenak

**I**azko abenduaren 15ean erre zen Ezkio-Itsasoko Agerre Aundi baserria. Arratsaldeko 3.30etan sua hasi eta 8.00etarako dena kiskalita zegoen. Bi familia bizi ziren, Izagirretarrak eta Zubillagatarrak, guztira 10 lagun. Erreketa gastuei aurre egiten laguntzeko 'Agerre Aundiri laguntzen' batzordea sortu da Ezkio-Itsason.

Sua tximinia batean hasi omen zen eta ondoren habeak hartu zuen sua. Handik zabaldu zen sua. Maria Isabel Olanga Ezkio-Itsasoko alkateak adierazi digunez, "hasieran ez zen pentsatzen dena erreko zenik eta barruko gauzak ateratzen ez ziren saiatu, Ertzantzak eta Suhiltzaileek arriskutsua zela baizioten". Ganadua eta traktoreak ateratzea bakarrik lortu zuten Izagirretarrek eta Zubillagatarrek abenduaren 15eko arratsaldeko hartan. Soinean zeukatenarekin gelditu ziren. Baserriaren aseguru polizak ondo zituzten, gutxienik.

Lehenengo egunak sendiartekoen etxeetan pasatu zituzten. Astebeterako, behin-behineko etxea utzi zien Zumarragako Udalak, bat altzariekin eta bestea gabe. Ezkio-Itsasoko Udalak jarri zituen behar ziren altzariak. Esan beharra dago baita ere, etxeko arropa ugari bildu dela herritarren borondatez.

Ezbeharraren biharamonean herri bilkurarako deia egin eta herritar ugari azaldu zen bertan. Datu bat: baserriaren hondakinak garbitzeko 30 laguneko 3 talde bildu ziren. Herri bilkuratik sortu zen 'Agerre Aundiri laguntzen' batzordea.

Txekor bat zozketatuz, 10.000 errifa atera zituzten. Gabonak aprobetxatuz, kantuan ere atera ziren 3 talde. Herritarren erantzuna berriro ere oso ona izan zen, 731.000 pezetatik gora bildu baizituzten.

Beste hainbat ekimen ere burutu dituzte ezkio-itsasorrek. Igande honetan, esaterako, otsailaren 15ean, herrikirol jaialdia izango da Urretxuko Ederrena pilotalekuan, arratsaldeko 6.00etan. Lehenengo zatian, Urretxu Ezkio-Itsasoren aurka lehiatuko da aizkoran eta arto-lokatxak biltzen. Aizkoran Otamendi urretxuarra eta Ugarteburu ezkio-itsasorarra arituko dira elkarren aurka; arto-lokatxak biltzen, Larrea eta Eneko. Bigarren zatian, erakustaldia eskainiko du Goenatxo II.a harrijasotzaileak,



*Erretako Agerre Aundi baserriko hondakinak auzolaenean ateratzeko 90 lagun elkartu ziren.*

250 kiloko errektangularrarekin, 125 kiloko kubikoarekin eta 100 kiloko biribilarekin. Eta azkenik, aizkora saioa izango da. Larretxea eta Elorriaga, Arrospide eta Azurmendiren aurka arituko dira. Egin beharreko lana, 60 ontzako 8 enbor ebakitzea, txanda librean. Jaialdi guztia Olarte Anaiak trikitalariek alaituko dute.

Martxoaren 14rako bertso-jaialdia antolatu dute, Zumarragako Beloki pilotalekuan, gaueko 10.30etan. Iñaki Murua gai-jartzaile dutela, Egaña, Sarasua, Lizaso, Irazu, Lujanbio eta Penagarikano arituko dira.

Egun berean, ateratako erriren zozketa bertan egingo da.

### Herria elkartua

Mari Isabel Olanga alkatearen esanetan, ezbehar honek bi ondorio garrantzitsu izan ditu herrian: "bildutako diruak osatuko dituen lehen beharrak eta alderdi politikoaren arteko ezberdintasunen gainetik, herritarrok elkartzeko eta batzeko gai izan garela ikustea".

Hausnarketa ere egin nahi dute egun hauek pasatzen direnean. Erretzen ari diren baserrietan sua itzaltzeko planak ondo aztertu behar direla uste du alkateak. "Bai ertzainak, bai suhiltzaileak, bai herritarrrak, saiatu ziren, baina dena erre zen, ez zuen funtzionatu. Kritika eraikitzailea egin behar da: denei eskertu bai, baina ez du funtzionatu".

Azkenik, oraindik ere irekita dagoen Kutxako kontukorrontearen zenbakia ere eman digu alkateak, borondatez lagundu nahi dutenentzat: 2101 0059 41 0010701647.



*3 talde ibili ziren gabon eskean herriko auzo ezberdinetan.*



## ATAUN



Batzuentzat moda kontua da, edo gehienez haur eta gazteentzako asmatutako zerbait; beste askorentzat osasun iturri ere bada, edota gorputzari eragiteko aitzakiarekin lagunartean egoteko aukera aproposa. Soinketak, izan ere, ezaugarri horiek guztiak dauzka eta norberak daki zergatik gus-tatzen zaion ala zergatik ez duen atsegin.

Norberaren gorputzaren mugak ezagututa eta beti ere neurritz eginda osasun-tsua den jarduera hau, ordea, "gaixo" dago San Martinen. Hala esan daiteke, behintzat, bai mantenimen-duko soinketan bai 3. adinekoenean dabilen jende kopuru eskasa ikusi ondoren. San Martingo soinketak sanmartindarren beharra du

## Soinketa, osasun errezeta

"iraungo" badi. Beraz, badakizue, apuntatu nahi izanez gero, ondorengo egun eta orduetan Auzoeta polikiroldegira azaldu eta kitto!:

Mantenimenduko soinketa: astelehenean, asteazkenean eta ostiralean, arratsaldeko 6:00etatik 7:00etara (hiruhilabeteko kuota: 4.500 pezeta).

3. adinekoen soinketa: asteartean eta ostegunean, arratsaldeko 6:00etatik 7:00etara (hiruhilabeteko kuota: 1.500 pezeta).

Animo, ea gure "gaixo" sendatze bidean jartzen dugun!

### Labur-labur

● Osasun kontuekin hasi gara eta osasun kontuekin jarraitzen dugu. Izan ere, herriko kultura eta, zehatzago, **literatura**, osasuntsu dabil aspaldian eta adibide bezala hor ditugu **sarituak** izan diren **zortzi herritar**

hauek: Santurtziko udalak eta AEK euskaltegiak antolatutako "Olentzerori gutuna" lehiaketan Jon Aizpuru, eta Beasaingo udaleko Euskara Sailak antolatutako idazlan lehiaketan, berriz, Andoni Munduate, Nerea Elias, Arkaitz Apalategi, Ainara Gorostizu, Intza Barandiaran, Ixiar Rodrighez eta Irati Arratibel. Zorionak denoi!

● Herriko eskolak "**Eguzki Berri**" aldizkariaren 50. alea atera behar duela eta, urrezko argitalpen hori behar bezala ospatzeko asmoz, lehen alea argitaratu zuen taldearengandik hasi eta gaur arte eskolan ibili garenontzako doa ondorengo gonbite hau: idazlan, olerki, bertso, argazki, marrazki, pasadizo eta antzekoak bidaltzekoa, alegia. Bakarka edo taldeka egin daitezke lanak eta eskolara bidali behar dira otsailaren 27rako. Astindu sormen sen horiek!

● Herriko **jaientzako** 4.677.210 pezetako aurrekontua onartu zuten otsailaren 4an egindako udalba-

tzan. Betikoez gain, aipatzekoa da iaz berreskuratu genuen San Isidro eguneko ferriari jarraipena emateko asmoa dagoela.

● Eskolarteko mendi irteera izango da otsailaren 22an (igandean); oraingoan Erniora. Irteera ordua eta lekua: goizeko 8:30etan San Martingo plazan.

● Ataungo V. Futbito Txapelketa martxan dago dagoeneko. 16 talde ari dira parte hartzen eta partidua larunbat arratsaldean izaten dira Auzoetan.

● Aurtengo Santa Ageda bezperako diru eskea Inaxito Aierbe herritarrari laguntzeko egin zen. Inaxito Venezuelan bizi da eta daukan gaixotasun larria ahal den neurrian gozoagotzeko egin zen diru eske hori.

● Bi heriotz izan ditugu azken egunotan **herrian**: Arin Etxeberriko Bixenta Goikoetxea eta Sariarte azpiko Migel Jose Etxeberria. Beren sendiekin bat egiten dugu euren nahigabea.

Josune Aldabe



88 55 00 ORDIZIA

GOIERRITARRA



88 96 12



MUJIK



BEASAIN 88 74 00

## GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

**MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak**

Esuskal Herria Kalea  
Industrialdea

88 04 15  
16 07 07

ORDIZIA  
OLABERRIA



## BEASAIN

## VIII. Beasain idazlehiaketa



Arantxa Aseginolaza kultura zinegotzia sariak banatzen.

Pasa den larunbatean izan zen ume, gaztetxo eta gazteei zuzendutako VIII. Beasain Idazlehiaketa honen sari banaketa, Udaletxeko Batzar Aretoa leporaino betea zegoela. Aurtengo edizio honetan 5 maila desberdinetan banatu da lehiaketa. Hiru maila nagusienetan, 12-13, 14-15 eta 16-18 urte bitarteko gaztetxoak bildu dituztenetan, eskualdeko ikasle guztiek parte hartu ahal izan dute, eta epaimahaia osatzen Xabier Gartzia, Mikel Sarriegi eta Iduurre Eskisabel izan dira. Bitxikienetan aldiz, 8-9 eta 10-11 urteko haurrak biltzen zituztenetan, Beasaingo ikastetxeetako haurrek bakarrik izan dute parte hartzeko aukera, eta epailanean Gabino Murua, Jexux Aizpurua eta Begoña Iartza izan dira.

Sari hauek Kutxak finantzatu ditu eta antolatzaile Beasaingo Udala izan da. Idazlan saritu guztiak bilduko dituen liburuska bat argitaratuko du, ekaina alderako prest egongo dena eta aurreko urteetan bezala, ikasleen artean banatuko dena.

Sarituak asko izan dira, 40 guztira. Atal bakoitzeko irabazleak bakarrik jarriko ditugu, luze joko du bestela.

**A maila: 1979-80-81ean jaioak.** Olerkian, Igor Aristegi (Txindoki Institutua),

'Abailduriko lilien alegoria' lanarekin. Hitz lau: Uxue Arostegi (Txindoki Institutua), 'Azkenean gurekin' lanarekin **B maila: 1982-1983an jaioak.** Uxua Larrañaga (Alkartasuna Lizeoa), 'Ni ez naiz horietako bat, ezta?' lanarekin.

**D maila: 1984-1985ean jaioak.** Julen Mujika (Alkartasuna Lizeoa), 'Betiko lagunak' lanarekin.

**E maila: 1986-1987an jaioak.** Maitane Larrañaga (Murumendi ikastetxea), 'Igela eta Printzea' lanarekin.

**F maila: 1988-1989an jaioak:** Irma Rodriguez (La Salle-San Jose ikastetxea), 'Animalia miresgarriak' lanarekin.

### Musika klasikoari buruzko irratsaioa Beasaingo Ikastolako ikasleen eskutik



Andramendi, Beasaingo Ikastolako Lehen Hezkuntzako seigarren mailako eta DBH 1. mailako ikasleek, Segura Irratian musika klasikoari buruzko irratsaioa anteneratuko dute ekainera bitartean: 'Musika klasikoaren giltzak' izenekoa. Irratsaioaren helburua ikasleek ikastolan entzuten dituzten musikagileei buruzko irratsaioak prestatu, gidatu eta ematea da. Irizpide nagusia ez da musika klasikoaren historia egitea, baizik eta musika klasikoaren bidez egilez-egile lotzen den ibilbidea antolatzea. Egile batekin beste batekin dituen harremanak aztertuz, egileen bizimoduaren berri jasoz, musika eta literatura edota musika eta zinemaren arteko harremanen berri emanez, eta abar. Hori dela eta, aurtengoan, Rimski-Korsakov, E. Grieg, P.I. Txai-kovski, B. Smetana, M. Ravel, W.A. Mozart, eta L. van Beethoveni buruzko saioak egingo dituzte. Irratsaioak astelehenero entzun ahal izango dira, 2.30etatik 3.30etara, Segura Irratian.

### Ai Geala-ren bilera

Ai Geala euskara taldeak bilerarako deia egin du, bihar, larunbaterako (otsailak 14), goizeko 11.00etan, Udaletxeko Batzar Aretoan. Bazkide direnei eta bazkide ez izan arren diren euskararenaganako kezka duten herritarrei zuzendua dago bilera, aurrera begira zein pauso eman erabakitzeko.

### Ihauteriak

Ohi denez, ihauterien inguruan ez da ekintza handiegirik izango Beasainen. Dena den, ekitaldi batzuk badira eta horien berri behintzat eman nahi dizuegu.

Honela, alde batetik, ipuin kontaketa berezi bat izango da datorren asteazkenean, hilak 18, Kultur Etxeko liburutegian eta arratsaldeko 6.30etatik aurrera. Itziar Zubizarreta idazle donostiarrak ihauterietan girotutako ipuinak kontatuko ditu. Ordubete inguruko saioa izango da, eta printzipioz, 5-9 urte bitarteko haurrei zuzendua dago.

Beste ekintza, larunbatean (hilak 21) iritsiko zaigu, Ostadar dantza taldeak antolatutako. Lehenik, eguerdiko 12.00etan, dantzarien ibilaldia izango da herriko kaleetan zehar ihauterietako jantziekin. Eta ondoren, arratsaldeko 5.00etatik aurrera, Ihauterietako dantzen jaialdia izango da Loinazko San Martin plazan. Eta erabat konfirmatua ez dagoen arren, ziurrenik kanpoko dantza talderen bat egongo da, bi ekitaldi horietan Ostadar taldekoekin batera.

Aitor Arrue



## IDIAZABAL

San Blas bezperak albiste ona ekarri zuen herrira. ONCE itsuen elkarteak urtarri-laren 28an egindako zozketan, Muñok saldutako 40.139 zenbakia saritu zuen.

Muñok zenbaki irabazlea zeramaten 90 kupoi saldu zituen. ONCEko arduradunen esanetan ez da ohikoa kupoi saltzaile batek hainbeste kupoi eramatea. Baina Muño "ez ohiko" saltzailea dela ere badiote Itsuen Elkartekoek, izan ere, berak duen ezintasuna dela eta, Goierriko hainbat herritan saltzen ibiltzea posible du. Idiazabal, Segura, Zegama, Mutiloa, Iurre eta Olaberri aritzen da kupoiak saltzen.

Hori dela eta, saria hainbat herritan banatu du Muñok. Olaberriko lagun bati ehun milioi tokatu zaizkio. Aristaingo langileek ere zortea lagun izan dute, Muño errelebo aldaketetan lan-tegiko atean izaten da eta han erositakoei tokatu zaie.

Idiazabalen 21 txartel saritu saldu ziren, gehienek bost milioiko saria jaso dute, 25 poltsikoratu duenik ere bada ordea. Seguran beste hainbeste.

### Sanblasetako emaitzak

Batzuk poltsikoak ondo beteta pasatu dituzte beraz aurtengo jaiak. Sei festa egunen balantze ofiziala ez du oraindik egin Kultura-Batzordeak. Festa egunetan besteak beste kirol dexente ikusteko aukera izan da. Sanblasetarako antolatutako lehiaketen emaitzak ondoko hauek dituzue.

- **Herriko txirrindularitza** lasterketa Jon Iparra-girrek "Amez"ek irabazi zuen, bigarrena Xabier Intsausti izan zen eta hirugarrena Arkaitz Galparsoro. Gazteetan garailea Jon Urteaga izan zen.
- **Futbito** txapelketako finala Klifor eta Oldfox taldeek jokatu zuen. Klifor-ek 5 eta 0 irabazi

## Diruaren hotsa



Kirolaz gain jateko beta ere hartu zuten San Blasetan.

zuen finaleko norgehiagoka. Finalerdietara iritsitako beste bi taldeak: JFK eta Insert Coin.

- **Plater hausketak** lehiaketako irabazlea Juanito Mendizabal izan da eta bigarrena Haritz Imaz.
- **Ping-Pong** txapelketak 32 lagun bildu ditu. Kiroldegian jokaturako partiduetan garailea Juan Karlos Insausti izan da, bigarrena berriz Martin Sanpedro.

- **Bolalekuak** ere jendetza handia bildu du festa egunetan. 65 partaide izan ziren bola lehiaketan parte hartzen. Irabazlea Segurako J.M. Insausti izan zen, bigarrena Zeraingo Luis Aizpeolea eta lehenengo herritarra Martzelino Agirre. Jubeniletan sailkapeneko lehen postua Mikel Mendizabalek lortu zuen.

Xabier Urteaga

## ZEGAMA

Datorren ostiralean, otsailak 20, ospatuko da ihauteri jaia, Tobera musika eskolak, Aitxuri herri-eskolak eta Kultur Etxeak antolatutarik. Jarraian duzue egitaraua:

**15:00etan:** Aitxuri herri-eskolako haurren desfilea mozorroturik.

**16:00etan:** Txokolate jatea, plazan. Ondoren Tobera musika eskolakoek jaia girtzeko asmoz, beraien instrumentuekin hartuko dute parte.

**18:30etan:** Buruhan-diak.

**Gauean:** Afaria Kiroldegian. Bakoitzak bere janaria eraman beharko du. Mahaiak eta aulkiak, Udalaren kontu. Ondoren dantza lehiaketa izango da.

### Parrokiaren inkesta

Parrokiak 1996an igandee-tako eukarisitari buruz herritarren artean egindako inkestaren azalpena emango da Kultur Etxean, otsailaren 17an, iluntzeko 8.00etan.

## Ihauteri jaia otsailaren 20an

### Kirol Eskolarra

- Otsailaren 1ean Oñatin ospatu zen kro-sean, Amaia Urbizuk lehen postua eskuratu zuen neska infantiletan. Zorionak Amaia!
- Datorren igandean Aitxuriko ikasle eta guraso talde bat Irimora joango da. Anima zaitetz! Irteera 8.30etan izango da.
- Hilaren 6an txirrindularitza-ko ikastaroa hasi zen.

- Eskolarteko txapelketa dela eta, datorren otsailaren 28an, goizeko 10.00etan Eskolarteko Gipuzkoako txapelketaren barnean kokaturiko lokotx biltzearen finalaurrekoa jokatu da, Kiroldegian.

Eduñe Albizu



# ORMAIZTEGI Ihauteriak eta Kultur eguna Herri-eskolan



Ihauterien atarian gaudela eta herri-eskolakoek antolatu dituzte garaiari dagozkion festa ekintzak.

Otsailak 24, asteartean, ihauteiei dagozkien festa ospakizunak izango dituzte. Hurrengo egunean, berri, otsailaren 25ean, azken urteetan antolatu izan dute kultur egun ospatuko dute.

Ihauteiei dagokienez esan behar asteartean arratsaldeko ordubietatik aurrera eskolako maila desberdinetako ikasle taldeek beraien moztaroen bertaraturikoen algarak sortaraziko dituztela. Eskolaurrekoek talde bat osatuz egingo dituzte beraien agerraldiak, gainontzeko taldeek berri, bakoitzari dagokion moztarodantza eskainiko dute.

Asteartean ihautei ospakizunak izango badituzte ere, asteazkenean kultur arloko ekintzetan murgilduko dira. Aurtengorako ere ospakizunak betetako kultur eguna antolatu dute.

Goizeko 10.30etatik aurrera Enkarni Genua txotxongilo talde ezagunekoek 'Galtzagorri' izeneko obra eskainiko dute.

Arratsaldean eskola aurrean tailerrak izango dituzte. Bertan San Andres herri eskolako haurrek era des-



## Ormaiztegi herri berziklatzaileena

Sasieta Mankomunitateak egindako 1997ko txostenaren arabera, Ormaiztegi da Goierriko herri berziklatzaileena. Datuek diotenez, 1.182 biztanle ditu Ormaiztegi eta 27.103 kilo beira bildu ziren. Hau da, biztanleko 22,93 kilo. Pape-rari dagokionean, 30.366 kilo bildu ziren guztira, hau da, biztanleko 25,69 kilo. Udaberrian ontzi arinak jasoko dituen edukiontzia jarriko da herrian, laranja kolorekoa.

## Zumalakarregi museotik:

Joan den urtean Zumalakarregi museoak ikerketa historikoa sustatzeko eskaintzen duen laguntzak 7. deialdia bete zuen. Aurreko sei urteetan bezala ikerketaren emaitza. Alfredo Moraza donostiarrak egin duen lanak, 'Una aproximacion al fenomeno de la enajenacion de los comunales guipuzcoanos a principios del siglo XIX: Las uniones de Enirio-Aralar e Insusti (Gipuzkoa)', XIX. mendeko lehen erdian mendien ustiaketa aztertzea du helburu. Tirabira ugariren berri dakarkigu ikerketak, artzain eta egurgileen artekoak, herri-tar eta udalen artekoak, herri desberdinen artekoak, beti ere kontrajarritako interesen arabera. Egileen konklusioen artean azpimarragarrienetakoa, egundaino iritsitako basoen ustiaketa orekatuaren mitoa bertan behera uztean datza.

Inork ikerketa lan hau kontsultatu nahi balu, Zumalakarregi museoan dauka aukera, ohiko ordutegian.

berdinetako eskulanak egingo dute aukera izango dute.

Ondoren arratsaldeko 4.30etatik aurrera, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak

eskolako haurren algarak sorraziko dituzte, giroa erabat alaituz.

## Odol emaile elkartearen eskertza

Otsailaren 2an Ormaiztegi-ko Odol emaile elkartearen beste odol ateraketa bat egin zen. Elkartetik adierazi zaigunez, asteleheneko emanaldian 48 odol emailek eman zuten odola. Guztiek jaso ezazue eskerrik beroena elkartearen izenean.

Aldi berean odol ateraketa honetan ere beraien laguntzaile izan direnei bihotzez eskertu nahi diete jasotako laguntza. Medikuntzako baliabideak beraien zerbitzura jarri izanagatik, herriko sendagileari, Deba harategia, Murua harategia, Iñaki autozerbitzua eta Elozegi ardoteagari.

Aitziber Murua



**ARANDIA**  
Garaiea

LADA  
Ssang Yong  
N-1, z/g  
88 09 47

AUTOEN KONPONKETA  
Iurre Auzoa  
OLABERRIA

**GESTORIA BIOK**

**ASEGUROAK**

- ✗ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✗ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

88 44 00 - 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

**KEMEN KIROLAK**



Zumalakarregi, 1

88 51 68

ORMAIZTEGI



# SEGURA

## Herri Eskolaren IV. Aste kulturala

Eskola eta herriaren arteko lotura sendotu nahirik, Laiotz Herri Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek ondorengo egitaraua prestatu dute otsailaren 24tik martxoaren 1era:

**Asteartea, 24: 'Ihauteri festa'.** 15:00etan moztorturik herrian zehar kalejira. Ondoren, jaialdia eta txokolate jana plazan. **Asteazkena, 25: Ipuin kontakizunak** Isabel Agirresaroberen eskutik, beheko eskolan, 15:00etan, 3, 4 eta 5 urtekoentzat eta 15:30etan, 1go ziklokoentzat. Goiko eskolan 'Idazlea eskolara': Joxean Ormazabal; 2.30etan 2. ziklokoekin eta 3.30etan 3. ziklokoekin. **Hitzaldia:** 19:00etan Kultur etxean. Gaia: 'Autoestima'. Hizlaria: Olga Padró herritarra. **Osteguna, 26: Jaialdia** (antzerkia, abestiak...), barnetegian, 10.00etan barnegikoentzat eta Zegamako ikasleentzat; eta 15:00etan gurasoei eta Zeraingo ikasleei eskainia. **Ostirala, 27: Jolasak** eskolan 14:30etan. 16:45etan umeen musika emanaldia enparantzan. 17:30etan buruhandiak. **Hitzaldia:** '3. hizkuntzaren trataera irakaskuntzan', David Galparsororen eskutik, 19:00etan Kultur etxean. **Zapatua, 28: 'Detraka' animazio taldea**, 17:00etan frontoian. Sarrera: 250 pezeta. **Jaia, 1: 'Segura eza gutuz'.** 11:15etan, M<sup>a</sup> Jose Insaustirekin bisitaldi gidatua herrian zehar. Ondoren mokadutxo beheko eskolan. Eskolako ateak zabalduko zaizkie herritarrei.

### Bola

Otsailaren 1ean, Jexux Mari Intxaustik (36 birla) irabazi zuen Idiazabalgo jaietako

bola saioa. Goierriko txapelketako lehen saioan, otsailaren 7an Gabirian, 4. geratu zen Joakin Izagirre (47 birla). Gipuzkoakoan, otsailaren 8an Legazpin, 3. Xepiño Agirre (46 birla).

### Futbola

**Asteburuko emaitzak:** **Errejonialak:** Ilintxa 2-2 Segura. **Jubenilak:** Segura 3-3 Beasain. **Kadeteak:** Aldapetarrak 2-2 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 3-2 Beti Gazte.

Asteburuan etxean: **Errejonialak:** Segura-Hernani, zapatuan 16:00etan. **Kadeteak:** Aizkorri-Aurrera, jaien 16:00etan.

### Labur labur

● Urtarrilaren 27an, **ONCEko 40.139 zenbakiarekin** 100 milioi banatu zituen herrian Clemente Ariztimuñok.

● Urtarrilaren 30ean Gipuzkoako Merkatal Ganbarak artisau tradizionalei banatutako 4 diplometako bat, **Pedro Mari Galparsororentzat** izan zen junkozko altzariengatik. Informazio gehiago 16. orrialdean.

● Otsailaren 5eko plenoan eman zion ofizialki **Udalak ezetza** Madurako lurjabeek proposatutako erreferenduari, EA eta EAJren aldeko botoekin eta HBren kontrakoekin.

● Otsailaren 6an izan zen Beasaingo Euskara batzordeak antolatutako **"VIII. Beasain Idazlan Lehiaketa"**ren sari banaketa. Prosa, 17-18 urtekoen modalitatean Uxue Arostegik eskuratu zuen lehen saria "Azkeanean gurekin" idazlanagatik. Olerkian eta modalitate berean, Olatz Goenagak ai-



### Kirol eskolarra

**Krosa:** otsailaren 1ean, Oñatin, 2.900metrotan, 60 partehartzailetatik 3. egin zuen Eneko Agirrezabalek. Otsailaren 15ean, neska zein mutil alebin eta infantilek Hernanin korrituko dute. **Tenisa:** otsailaren 7an, neska eta mutil alebinek Lizeoko eta La Sallekoen kontra irabazi egin zuten. Otsailaren 14an mutilek etxean jokatu dute Murumendikoen kontra eta neskek Ordizian Urdanetakoen aurka. **Pelota:** otsailaren 7an Garikoitz Oiarbidek eta Enetz Olanok La Sallekoei 18-2 irabazita, 2. faserako sailkatu dira mutil infantilak. **Mendi irteera:** otsailaren 15ean, goizeko 8:30etan plazatik irtenda, Korostira. Argazkian teniseko partehartzaileak.

pamen berezia jaso zuen "Errealitatearen gidari" lanagatik.

● Otsailaren 7an irten zen **Jokin Izagirre** beste 2 lazkaotarrekin batera Ruandako misioetan hainbat lan egitera. 3 astetan, besteak beste, ur bonba bat eta ikusentzunezko bat jartzera. Familiakoei esan dienez, orain 2 urte joan zirenean baino lasaiago omen dago egoera.

● Otsailaren 8an Lizarran izan zen Euskal Herriko kros txapelketan, 5.000 metrotan, 130etatik 28. egin zuen **Zeles Sodupe**.

● Otsailaren 11n egin zen **San Joan jaiak** antolatzeko lehen bilera Udaletxean. Hasieran hilero eta ondoren hamabostero bilduko dira. Edozeinek parte har dezake.

● **Ikastaroak:** Udaleko

emakumeen batzordeak antolatuta, eskulan eta lorazaintza ikastaro berriak hasiko dira martxoan. Informazio gehiago Udaletxean. Bestalde, aerobic ikastarorako 8 lagunek eman dute izena eta aurki dira hastekoak.

● Martxoaren azken astean da burutzekoa **"Iparra-He-goia"**ren III. edizioa.

● "Segura aztergai" taldekoek, **Jon Txabarri** udal arkitektoak plan bereziari buruzko solasaldi batean parte har dezan eskatu diote Udalari.

● Medikuei etxetik Akelarreko bidegurutzera **espaloia** egingo da baratzeak dauden aldetik. Obrak 1,5 milioiko aurrekontua du eta Diputazioaren gain joango da.

*Joseba Telleria*



# LAZKAO

## Lakaoko laguntza Ruandara



*Txomin eta Jokin bigarren aldiz joan dira Ruandara, bertakoei laguntzera.*

Ez da oraingo kontua, aspaldikoa baizik, hainbat eta hainbat euskaldunek Afrika aldean eskeini duten laguntza. Hauetatik gehienak misiolari izanik ere, beraien laguntza esparru oso desberdinetara zabaldu behar izan dute. Gizon eta emakume hauen lana osatzeko asmoz, orain bi urte Jokin Izagirre segurarra eta Txomin Barandiaran lazkaotarra Ruanda aldera joan ziren beraien laguntza ematera.

Bidaia hartan helburu zehatz bat zuten, maternitate batean eguzki plakak jaretzea argi indarra lortzeko. Lan hura arrakastatsua izan zenez aurten ere bertaratzea erabaki dute lan hari jarraipena emateko asmoz. Aurten gainera laguntzaile berri batekin joan dira, Miren Ormazabal lazkaotarrarekin hain zuzen.

Aurten ere, Leonardo Es-

naola misiolari lazkaotarra dagoen Gihara herrira joan dira, eta bertan burutuko dituzte lanik gehienak. Orain astebete hasitako bidaian errebisio eta konponketa lanak dira ardatz nagusiak, hala nola, orain bi urte jarritako eguzki plaken errebisioa egingo dute, baita elektrizitate instalazio eta ursaeren errebisioa ere. Beste lan garrantzitsu bat ere badute: hemendik gutxira iritsiko zaizkien proiektore batzuentzat lokalak egokitzzea, hau da, lokal hauei sare elektriko egoki bat jaretzea eta abar.

Hiru asterako joan diren goierritar hauek, bidaia beraien poltsikutik ordaindu badute ere, hango lanetarako, Lazkaoko Udalak emandako milioi bat pezetaren laguntza izango dute eta partikular askok emandako diruaz ere baliatuko dira.

### Goiherriko Euskal Eskolaren ekintzak

Ondorengo hauek dira Goiherriko Euskal Eskola Kultur Elkartek ondorengo bi hilabeteetan burutuko dituen ekintzak.

- Joan zen astazkenean, hitzaldia eman zuen Emeterio Sorazuk 'Ihauteriak Euskal Herriko ohituretan' izenarekin, Maizpide Euskaltegian.
- Otsaiaren 17an, astearte arratsaldean, **urteroko batzarr**a egiteko asmoa dute eta bazkide guztiei deialdia zabaltzen zaie.
- **Talo ikastaroa.** Otsailaren 24, 25 eta 26an, arratsaldeko 3:00etatik 4:00etara talo ikastaroa burutuko da Lazkaomendiko Elkartean. Bertan parte hartu nahi duenak Gerriko liburudendan eman beharko du izena otsailaren 16a baino lehenago. Ikastaroaren prezioa 1.000 pezetakoa izango da.
- Aurreko ikastaro honen haritik **talo-afaria** egingo da otsailaren 27an, ostirala, Lazkaomendiko Elkartean. Honako menu hau izango duzue bertaratzen zeratenok: 1. go platera, taloa hirugiarrarekin; 2. platera, taloa txistorrarekin; 3. platera, taloa txokolatearekin; postrea, taloa eta esnea. Afari honen prezioa 1.300 pezetakoa izango da eta izenematea otsailaren 24a baino lehen egin beharko da Gerriko liburudendan (886500) edo Gerriko tabernan (889943).
- **Hiru dimentsiotako koadroen ikastaroa** berriz, martxoan astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan egingo da Gerriko Txokoan. Ikastaroaren prezioa 4.000 pezetakoa izango da eta izenematea Gerriko liburudendan egin beharko da otsailaren 23, 24, 25 eta 26an.
- Bestalde aipatu beharra dago apirileko kultur hamabostaldirako kalean izango dela **Antzarren VIII. pertso-paper bilketa**, Lazkaotarrek eginiko bertsoez osatutako liburuxka hain zuzen.

### Festak prestatzeko bilerak

Datorren astean hasiko dira aurtengo Sanprointzioak prestatzeko bilerak. Bilera hauek Lazkaoko gazte koardilekin burutu nahi dira,

eguna eta ordua herrian zehar jarriko dituzte bere gairako.

*Urko Irastorza  
Koldo Urrestarazu*

### LOINATZ

Taberna  
Jatetxea

Bazkari, afari,  
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



*Lirain*

*Lurrindegia eta opari gaiak*

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 8893 90 BEASAIN



# ZALDIBIA

## Aritz Zeberio erreumontista profesionala

Aritz Zeberio Sukia 24 urteko gaztea da. Bere izena pelotari profesional bezala inskribatu berria du, erremon-te espezialitatean. Ibilbide berria ilusio handiarekin hasi du eta behar dena sakrifikatzeko prest dago espezialitate honetan ahalik eta urrutiena iristeko. Beasaingo CAFen duen lanpostuarekin bateratuz.

- Lehenengo erreumontista zaldibitarra zarela kontuan hartuz, galdera bistakoa da. Nondik sortu zaizu afizioa?

- Nire aita Elduaingoa da eta umetan askotan joaten nintzen baserrira. Hiru lehengusu pelotari ditut, horietariko bi erreumontistak dira: Zeberio I eta II (ni Zeberio III naiz). Etxean betizaten zen erremonterako saskiren bat eta han hasi nintzen lehenengo urratsak ematen.



### Amateur mailan Aritzen historiala

- 1994 eta 1995, Gipuzkoako txapeldunordea.

- 1996, Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelduna, Espainiako txapeldunordea, Amenabarrekin bikotea osatuz.

- 1997, Gipuzkoako txapeldunordea, Dorronsororekin bikotea osatuz, eta Espainiako txapelduna, Gaztelurekin bikotea osatuz.

- Gero Galarretako eskolan sartu zinen.

- Hala da. 17 urterekin Galarretan sartu nintzen eta entrenamentuen eta dedikazio handiaren ondoren, profesionaletan debutatzera iri-

tsi naiz, eta momentuz, helburua bete dago.

- Zaila al da 'erremon-tzen' ikastea?

- Nahiko zaila dela dirudi, indarra eta abiltadea elkar-tu behar dira, pelota asko ibiltzen da, baina guztia be-zala da, azkenean ogibidea ikasi egiten da hobeto eta okerxeago.

- Nola joaten zinen Zal-dibiatik Hernaniraino?

- Ahal nuen bezala. Eta gai-nera goizean oso goiz. Zen-bat aldiz hartu ote dut goi-zeko 6.30etako tren! Has-berriek profesionalei kantxa utzi behar izaten genien, en-trenamentuak goizeko 7.30etan hasten genituen eta bukatu ondoren frontoia garbitu behar izaten ge-nuen.

- Baina hori atzean gel-ditu zen, orain uzta bil-tzeko garaia da. Nola ikusten duzu etorkizuna?

- Momentuz jokatzan ari naiz eta hori da garrantzi-tsua. Urtean 100 bat partidu jokatu ditut, Galarretan eta Jai Alain.

- Eta nola ikusten duzu arlo ekonomikoa?

- Erremon-tetik ez dut bizi-tzekorik aterako, baina CAFen lan egiten dut, hori babes handia da, lehen ere esan dut, orain momentuan jokatzera bakarrik interesa-tzen zait.

- Erremon-teak zein etor-kizun du?

- Indarra hartzen ari da. Iru-ñean lehen ez zegoen ezer ez. Orain 'Erremon-tea 2000' bazkide bezala sar-tzearekin, gauzak aldatu egin dira. Enpresa-atal ho-nek jatetxea ireki du pelota-lekuan bertan; bazkaltzera joanez gero sarrera opari-tzen dute. Azken batean, zerbait egiteko prest dagoe-la uste dut. Bestalde, Nafa-rrako hainbat herritan erre-monte-eskolak ireki dira, Altsasun, Tuteran, Tafallan, Donezteben, eta abar. Nik uste dut lekua irabazten jo-ango dela.

Rufino Iraola

**ARRIZAR BODEGOIA**

Eguneroko menua 850 pezeta  
astelehenetik ostiralera,  
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 88 98 44 BEASAIN

**CGZ GOIERRI**

Ikerketaren Zentrua

Gida-agiri eta arma baimenatarako ikerketak

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.  
Larunbatetan: 9:30etatik 11:00etara.

Garagarza Pl. 10 888734 ORDIZIA

**GOIERRITARRA**

**88 96 12**



**AUSO EGI**

Urdaneta, 41  
©-Faxa: 88 95 76  
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak





## ORDIZIA

## Akordeoi lehiaketa-jaialdiako 2. edizioa prest



Bihar, otsailak 14, bukatuko da Ordiziako II. Akordeoi lehiaketan parte hartzeko izena emateko epea. Larrun Arri elkarteak, Udalarekin eta ETBrekin batera antolatua da lehiaketa. Iñaki Aierbe Larrun Arriko kideak eta akordeoijoleak adierazi digunez, lehiaketa baino gehiago, akordeoiaren jaialdia izatea nahi da.

Akordeoa azken urteotan musika klasikoari lotua egon da eta horretatik atera nahi dute. “*Euskal Herriko gazteen artean akordeoia bultzatzea eta giroa sortzea da helburua. Ezkontzetan eta berbenetan jotzen dute akordeoia, baina ez dute espektakuloko musikarik eginen. Bagenekien zaila izango zela, izan ere, azken urteotan, akordeoiaren giroa, musika klasikoa, literatura akademikoa da. Orduan guk, herriko musikaren espazioa berreskuratu nahi genuen eta hortik sortu zen ideia. Horretarako gazteak bultzatu egin behar dira*”, dio Iñaki Aierbek.

Lehenengo edizioa ez omen zitzaien nahi bezala atera. “*Talde bakarra aurkeztu zen, beste guztiak bakarlariak izan ziren eta jotzen zuten musika mota, orain dela hiruzpalau hamarkadakoa zen, balsak, pasodobleak... Baina guk*

*gaur egungo musika nahi dugu, folk, pop, jazz, country...*”.

Hori dela eta, oinarriak aldatu egin dituzte aurtengorako. Bakarlariek ez dute lekurik izango lehiaketa honetan, musika tresna ezberdinez osaturiko taldeek baizik, akordeoia bera delarik protagonista, noski.

Jo behar dituzten piezak hiru dira: bi norberak aukuratuak eta hirugarrena, antolatzaileek aukeran jarritako bitik bat, alegia, Aitor Furundarenaren ‘Burruntzalie’ edo Larry Ogaffen ‘The showman’s fancy’ kantu irlandarra.

Bi saio izango dira: martxoaren 14an kanporaketa eta apirilaren 4an, finala, Majori kiroldegian. Bi saioak ETBk grabatuko ditu. Iñaki Aierberentzat oso garrantzitsua da hori: “*badakigu telebistako irudiek zabalasun handia hartzen dutela eta asko lagunduko digu gure helburuak lortzeko, akordeoia eta musika herrikoia zabaltzeko*”.

Sariak ere izango dira: txapelak eta garaikurrez gain, irabazleentzat 150.000 pezeta izango dira; bigarrenentzat 100.000; besteei, 25.000 pezetana emango zaie.

### NAN berritzea

NANa iraungita edo kadukatuta baldin badaukazu, edota lehen aldiz atera behar baduzu, eta Ordizian bizi bazara, ez daukazu orain zertan Donostiaraino joan beharrik. Udalak egindako

jestioei esker maiatzerako talde bat ekartzea lortu da. Hau honela, otsaileko hila-bete osoan udaletxe azpiko arkupeko bulegora hurbil zaitezke behar bezela betetako estankoko eskaera eta NANaren kopia batekin. Hemen zenbaki bat emango zaizu, ondoren maiatzerako kontutan izango duzuna. Bulegoa astelehenetik larunbatera irekita egongo da, goizez bakarrik. Harremanetarako telefonoa 885958 izango da.

### Anexoko txapelketa martxan

Majorin areto futbol aimaiztear dagoen bitartean Anexoko futbol txapelketa has-tear dago. Asteburu honetan hasteko asmoa daukate Morapios eta Tximista talde antolatzaileek adierazi digutenez. Asteazkenean egin zen taldeen arteko bilera eta izena emandako 17 taldeak bi multzotan banatu dira. Emango dizuegu honen berri hurrengo batean.

### Areto-futbola amaitzen

Urritik aurrera makina bat partidua jokatu ondoren, amaitzeaz dago futbito txapelketako lehen fasea. Gogoratu bi multzotan banatu zituztela antolatzaileek 24 taldeak eta gauzak honela daude. A multzoan Lazkao-Alboka eta Tolosako Or-bela final laurdenetarako sailkatuak daude jada. Matxain, Badago eta Ñañarriren artean erabakiko dira gainontzeko bi postuak. Kontutan izan ihardunaldi bakarra geratzen dela. Multzo honetako goleatzaile nagusien artean Ñañarriko Mikel Gurrutxaga eta Ma-

txaingo Pedro Mari Goñi daude.

B multzoan, berriz, hemen ere azken ihardunaldia falta denean, erabakita daude aurrera joango diren taldeak zeintzuk izango diren. Ale-giko Juantxo, Tximista, Tolosako Laier eta Beasaingo Pio Bi. Juantxoko bi jokalaria dira hemen goleatzaile nagusiak.

### Mus txapelketa azkarra

Aurreko alean adierazten genizuen bezala bihar larunbata, hilak 14 jokatu da Argi Berri Elkartean XXI. Mus Txapelketa Azkarra. Sariak ez dira nolanahikoak izango, bikote irabazlearentzat 150.000 peze-ta. Ehundik gora bikote elkartzea espero dute antolatzaileek aurtengoan ere. Izena arratsaldeko 4:15ak baino lehenago emanda egon beharko da.

### AEK-ko idazlan eta postal lehiaketa

Goiztiri AEK Euskaltegiak gabonetarako antolatu zuen herriko ikastetxeetako ikasleen arteko idazlan eta postal lehiaketan irabazleak hauetxez izan dira Euskaltegiko ikasleen arabera: Idazlanak: 1go saria, Josu Usabiaga (Jakintza Ikastola); 2. saria, Oihane Aranburu (Jakintza Ikastola); eta 3. saria (Henar Insausti (Urdaneta Ikastetxea). Postalak: 1go saria, Amaia Garmendia (Urdaneta Ikastetxea) eta Manex Berzosa (Jakintza Ikastola); 2. saria Maitane Alvarez (Urdaneta Ikastetxea) eta Miriam Gomez (Jakintza Ikastola).

Aitor Calvillo



NEREA ERAUSKIN ORDIZIAR SOPRANO ALEMANIAN:

## "Euskal Herrian oso ahots onak daude, baina ez ditugu lantzen"

**N**erea Erauskin ordiziar soprano Alemanian ari da gaur egun kantu ikasketak burutzen. Etxean betidanik ezagutu izan du musika giroa, gurasoek Santa Ana abesbatzan kantatzen baizuten. 18 urte zituela, Nereak garbi zuen, musikaren bidea hartu eta ahotsa landuz, kantutik atera nahi zuela eguneroko ogia.

26 urte ditu Nereak. 8 urterekin sartu zen Ordiziako Musika Eskolan. Solfeoarekin hasi eta ondoren piano eta harmonia ikasketak egin zituen. Oroith abesbatzan aritu zen. UBIko ikasketak bukatu eta musikaren bideari serio ekin zion. Madrilen 'Escuela Superior de Canto'ra joan zen lehenengo. Hiru urte t'erdi egin zituen bertan. "Ahotsa neukala esaten zidan eta kantuari gogor ekitea erabaki nuen. Sakrifizio handiko ofizioa zela banekien hasiera-hasieratik. Madrilen ikasketak bukatu eta irakaslez eta lekuz aldatzeko gogoia nukan. Alemaniara joan nintzen orduan", dio Nereak. Karlsruhe herrian bizi da, Stuttgartetik gertu, Oihan Beltzaren ondoan dago. Ia 500.000 biztanleko hiria da.

Goi mailako ikasketak iazko apirilean bukatu zituen. Dena den, ikasketak



ez ditu hor bukatu. Orain beste irakasle partikular batekin, hilean behin edo, biltzen da orrazteko edo pulitzeko. "Behin ikasketak bukatu ondoren irakasle partikularrekin jarraitzen da ikasten. Beti berziklatzen egon behar da eta horretarako irakaslea behar da". Anna Reynolds, ingelesa da bere irakaslea.

Egunero abesten du Nereak, normalean 3 orduz; jaiegunetan gutxiengo. "Jendeak pentsatzen du abesteko ahots ona edukitzea nahikoa dela. Baina ez da hori bakarrik, egunero ordu asko eta asko sartu behar da, abesten eta teknika lantzen. Lan asko izaten da abestu beharreko obraren testuingurua aztertzen, opera guztia buruz ikasten, hizkuntza askotan abesten denez fonetika lantzen.... Obra gehienak alemanez, italiaraz, ingelesez eta frantsesez daude. Euskaraz eta gaztelaraz gutxiago".

Ordiziarak aitortu digunez, atzerrira joan behar

izaten da kantua ikastera. "Batez ere Alemanian dago ikasteko aukera handiena. Diru gehiena dago, antzoki gehienak ere han daude... 150.000 biztanle inguru dituen hiri bakoitzean antzoki bat dago Alemanian. Beraz, antzokietan abesteko ez dira denak Montserrat Caballer bezalakoak izan behar. Hasten ari den jendearentzat aukera handiagoa dago". Hasi berrientzat ere izaten omen da aukerarik. "Kontzertuak ateratzen dira, mezak organuekin eta abestiekin lagunduz... Mugitu beharra dago piska bat hasi arte, baina gero hasten dira deitzen", dio Nereak. Aurtengorako hainbat kontzertu badauzka ordiziarak; apirilean adibidez, Donostian izango da. Udazkeneko audizioak prestatu nahi ditu. "Ondo prestatua zaudela sentitzen zarenean, audizionatu beharra dago. Agente batengana joan eta agente hari gustatzen banartzazio, antzokietara sartzen joango naiz piskanaka. Promozionatzeko bidea da. Ge-

ro antzokiek kontratuak egiten dituzte, ikasteko oso ondo, nahiz eta oso gogorra izan".

Ikasketa aukera gehiago atzerrian badago ere, ahotsak, Euskal Herrian hobeak daude Nerearen esanetan. "Euskal Herrian oso ahots onak daude. Afalondorentan abesteko ohitura dago, abesbatzak ere badaude... oso ahots onak daude, Alemanian baino hobeak. Baina euskaldunok ez dugu ahotsik lantzen".

Ondo abestearekin batera, abeslariaren itxura gero eta gehiago hartzen da kontuan. "Txikiegia bazara esaterako, nahiz eta ahotsa eduki, amaren papera baino haurrarena emango dizue". Interpretazio lana ere ikasi behar izaten dute. Madrilen 3 urtez eta Alemanian opera eskolan ere ikasi du.

Gaur egun oso jende on asko dago operaren munduan, "nahiz eta munduan oso ezagunak ez izan. Askok gaur egun izarrak direnak baino hobeto abesten dute, baina marketingik ez dute". Nerea pozik egongo litzateke opera abesten jardunez. "Gezurra esango nuke munduko antzokirik onenetan abesterik nahi ez nuela esango banu, Milango Escalan... baina nire lana ondo egiten dudala ikusten badut, nahikoa dut".

Bukatu zaizkio Nereari ikasketetarako bekak. Alemaniara joateko Gipuzkoako Diputazioko bi urteko beka izan zuen. Azkeneko urtean Alemania bertako beka on bat izan zuen.





## 1977ko ihauteriak Segurako Ikastolan

1971n eta 1972. urteetan jaiotako segurarrak ditugu argazkian. Ikastolan ihauteri eguna ospatzeko, zein baino zein dotoreago jantzita.


**Goiko ilaran, ezkerretik eskubira:** Maixabel Telleria (andereñoa), Markel Telleria, Iñaki Ormazabal, Joseba Osinalde, Yolanda Gabilondo, Jaione Etxeberria, Edurne Izagirre, Aloña Intxausti, Jokin Etxeberria, Arantxa Izagirre, Ibon Etxeberria, Idoia Ruiz, Jaione Intxausti eta Maite Izagirre.

**Beheko ilaran:** Gurutze Alustiza, Luixito Garmendia, Felix Goiburu, Koldo Telleria, Xabier Ugalde, Gurutze Izagirre, Aitzol Telleria, Iker Garmendia, Xanti Ariztimuño, Karmele Albizu, Aitor Arrondo, Urko Larrea, Jabier Olaziregi eta Aitor Leturia.

## VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2  
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)  
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea  
babesteko gande*



**VENTANAS  
SAN MIGUEL**

**SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).**

**NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.**

**EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.**

**AHOLKULARITZA TEKNIKO ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.**

**30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.**



# *Etxea* Hornitu

**OTSAILAK**  
**9-tik 28-ra**

*Elektrizitatea*  
Konponbide  
baki  
handiak

*Margo*  
apaingarrietan  
azkenekoa  
**Brotzazo batez**  
**etxe berriak**

*Egoste eltzeria*  
**Sukalde onen**  
**oinarria**

*HI-FI eta TB*  
**Goi fideltasuna**  
**etaprestamen**  
**handikoak**

**PRYCA**